



Melike Yaşar: “Askatutako emakumeak izan ezean, ez da Kurdistan askerik izango”

Korrika 19 Urepeletik

Nola dago euskara
Baxenabarren?

**Miguel Zugaza,
Pradoko zuzendaria**

“Museoek ez lukete
marketinik egin behar”

**“Txanponaren beste aldeak”
sail berria**

**Ekonomia sozialeko
esperientziak**



BA AL ZENEKIEN GIPUZKOAKO
EMAKUMEZKOEN BATEZBESTEKO
ERRENTA 11.857€koa DELA ETA
GIZONEZKOENA 23.224€koa*?

berdintasuna?

Ulertuko duzu zergatik pentsatzen
dugun oraindik lan asko dugula egiteko.

Martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna

* Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkesta 2012.
Euskal urtekari estatistikoa 2010.



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitu Eizagire. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko martxoaren 8a, 2.452. zenbakia

ASTEKO GAIA

EUSKARAZKO KANTEN GRABAKETAK Gerra Handiko
presoen sentimendu musikatua. LOURDES IZAGIRRE ONDARRA / 4

PERTSONAIA

MIGUEL ZUGAZA: «Museo bat bisitatzea zarata mundanoaren
zurrunbiloari uko egitea da». SUSTRAI COLINA / 10

GAIAK

EMAKUMEAK XX. MENDEAN Ezkutuko amandreak argitara.
ALE GOIKOETXEA / 15

IRITZIAREN LEIHOA

MENDEBALDEA ETA DISONANTZIA KOGNITIBOA

ASIER BLAS MENDOZA / 18

BENETAKO PARTIDA, BI HILABETE BARRUKOA

FERMIN ERBITI ZABALZA / 20

TXIKLEAK NOIZ ARTE EUTSIKO DIO?

GORKA MORENO MÁRQUEZ / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Kaleak eta gauak. KATTALIN MINER / 20

BERTSO BERRIAK San Filippo. INIGO LEGORBURU / 21

ZIRTAK Zapaltzailearen takoiak. DANELE SARRIUGARTE / 22

ERDIKO KAIERA

CAROL RAMA Artearen historia berrirakurtzen.

ARITZ GALARRAGA / 24

BILBOKO LIBURU DENDAK Lauaxeta eta Kirikiñorenak
egin du. ITZIAR UGARTE IRIZAR / 28

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA / 30

MUSIKA JOXI UBEDA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 32

ALEA «Goonies never say die»: salba dezagun abenturazko
generoa! GAIZKA IZAGIRRE / 33

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

MELIKE YAŞAR: «Öcalanek emakumeen askapenaz esandakoa
gure alde erabili dugu». DANELE SARRIUGARTE / 38

EUSKARA BAXENABARREN Hizkuntzaren aurkako jarrera
baino, uzkurkeria nagusitzen da. MIKEL ASURMENDI / 42

TXANPONAREN BESTE ALDEAK Aldaketarako, lanean.
LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA / 45

DONBASS Kosmos txiki baten isla. ANDONI LUBAKI / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Boko Haramen oinarri soziala dira esklabo
umeak. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

EUSKARAZKO KANTEN GRABAKETAK

Gerra Handiko presoen sentimendu musikatua

Berlingo Etnologia Museoak euskaldunen altxor bat ezagutarazi du berrikitan. Etxe hartan gordetzen diren Lehen Mundu Gerrako milaka grabazioetako batzuk euskaraz daude. Gerra hartan preso egondako euskaldunen ahotsak entzun daitezke kantuan. Ez dira euskarazko grabazio zaharrenak, baina Gerra Handiaren erdian harrapatu zituzten ahotsok garai latzaren lekuko paregabe dira.

| LOURDES IZAGIRRE ONDARRA |

GERRA HANDIAN (1914-1918) Alemaniako preso esparruetan mundu osoko soldaduak izan zituzten gatibu, parte hartu zuten estatuek euren kolonietako milaka gizonezko eraman zituztelako borrokara. Esparru horiek laborategi modukoak ziren alemaniarrentzat, eta presoekin esperimentatu zuten makina bat arlotan, baita etnologia eta musikologiazko ikerketak egiteko ere.

Informazio horren zati bat ikusentzungai jarri du orain Berlingo Etnologia Museoak, apirilera arte zabalik duen erakusketan: esparruetan ateratako argazkiak, objektuak eta baita garai haietako artxibo soinuak ere, tartean euskaldunek kantatutako hainbat ale entzun daitezke. Hala, argizarizko xafletan duela ehun urte grabatuta geratu ziren *Gernikako Arbola*, *Adios izar ederra*, *Lili bat ikusi dut*, *Ziburutik Sararat*, *Amodio ohore*, *Atharratze jauregian* eta *Lurraren pean sar nindate* abestiak entzuteko aukera dago, euskal herriarren ahotik kantatuak.

Kantok ez dira grabaturik ezagutzen ditugun euskarazko zaharrenak. Lehenago, 1900 urtean, Azoulay doktoreak eginak zituen grabazio fonografikoak. Horiek Pariseko Antropologia Museoan aurkitu zituen Inaxio Lopez de Arana itzultzaile gasteiztarrek. Ezagunagoak dira Rudolf Trebischek 1913an Euskal Herrian egindako grabaketak; euskalki guztietako kanta, kontakizun, ipuin eta pasadizoak bildu zituen, tartean *Gernikako Arbola* kanta ikurraren lehen grabazioa.

Orduan, zer dute bereizgarri Berlingo Etnologia museoko argizarizko xaflek? Tes-tuingurua. Europa goitik behera aldarazi zuen gerra baten erdian, sorterritik urrun zeuden preso euskaldunen ahotsa da bertan entzuten dena.

Berlindik Leningradera, eta buelta

XX. mende hasieran Thomas Edisonen asmakizunak, fonografoak, ibilbidetxoak eginak zuten uhinak bibrazio bihurtzen. Gerra Handiaren batera, Wilhelm Doegen eskola irakasle berlindarrak gatibu esparruetako hizkuntzak eta musika grabatzeko burutapena izan zuen, hango aniztasuna ikusita. 1915ean Berlinen Komisio Fonografikoa sortu zuten helburu horrekin eta ikerlariak lanean hasi ziren (ikus 7. orrialdeko koadroa). Hala, 1916ko

abendutik 1918ko abendura artean jasotako kantak eta ahotsak 1.651 argizarizko diskotan grabatu zituzten. Kantak eta musika berriz 1.031 argizarizko xafletan. 1920an erakundea desegin egin zuten eta bilduma ere euskarriaren arabera banatu zuten: xafalak eta diskoak.

Gaur egun argizarizko diskoak *Lautarchiv* Soinuaren Artxiboa-n daude, Humboldt Unibertsitatearen ardurapean. Lehen Mundu Gerraren ostean, Berlinen disko horiei buruzko foiletok argitaratzen hasi ziren, tartean Karl Bouda filologoak euskarazko ahots eta kantez eginitako transkripzio fonetikoak. Jose Maria Etxeberria etnografoak 2008an publikatu zituen kanta horien zerrenda eta transkribapenak,

Kanta guztien corpusa bere osotasunean entzunez gero eta jakinda zein egoeratan sortuak diren, bigarren mezu bat antzematen zaie: gatibu daudela adierazi nahi dutela interpretatu daiteke



DEUTSCHES RUNDFUNKARCHIV – HISTORISCHES ARCHIV DER ARD

Carl Stumpf (eskuinean) eta Georg Schünemann (eserita erdian), tatar presoek musika grabatzen. Komisio Fonografikoak argizarizko 30.000 xafloko artxiboa sortu zuen, horietatik 34 xaflatan euskarazko 75 kanta gordetzen dira.

Euskarazko grabaketak 1913-1917 liburuan. Zehazki ia bi dozena disko dira; Etxeberraren esanetan Boudak disko gehiagoren berri ere bazuen, baina “seguruenik disko hauek eta Berlingo Fonetika Institutuan gordetzen ziren beste material asko Bigarren Mundu Gerran deuseztaturik geratu ziren”.

Argizarizko xaflen patua beste bat izan zen. Bilduma hori Artxibo Fonografikoan geratu zen hasiera batean, baina Bigarren Mundu Gerran Sobietar Batasunera eramane zuten, Leningradera, 1960an Ekialdeko Berlinera (DDR) eta 1991n Berlineko Etnologia Museora itzuli zuten berriro. Zortzi urte geroago Unescok 30.000 xafla inguru gordetzen duen bilduma hori *Munduaren Memoria* izendatu zuen. Tartean daude orain arte ezezagunak genituen eta gutxienez euskarazko 75 kanta dakartzaten 34 xafla.

Bi minutuko lekuko soinudunak

Euskaraz dauden 34 xafletako bakoitzak 2 minutu inguru irauten du. Denbora horretan batzuetan kanta bat, bestetan bi edo hiru kanta motz grabatuta daude. Orokorrean ez dira kanta osoak grabatu, kantaren ahapaldi bat, batzuetan bi. Ahots ederrak eta kantatzen ohitutakoak antzematen dira. Gehiene-

tan bakarka aritzen dira, baina badaude bina-ka, bertsotan ariko balira bezala, eta kanon moduan kantatzen dituzten kantak. Ez dago gatibuen egoera esplizituki aipatzen duen kanta edo bertsorik. Kanta guztien corpusa bere osotasunean entzunez gero eta jakinda zein egoeratan sortuak diren, bigarren mezu bat antzematen zaie: gatibu daudela adierazi nahi dutela interpretatu daiteke.

Berlingo Etnologia Museoko musikologia atalekoek ikerketa proiektua sortu zuten 2012an. Argizarizko xaflak prestatzen eta digitalizatzen hasi ziren, adituek eta interesatuek musika hori jasotzeko aukera izan dezaten. Urteen poderioz eta leku aldaketan ondoren xafla asko hondatuta zeuden. Xaflak erabiltzen diren aldi bakoitzean ere hondatuz doaz, argizaria oso material biguna delako. Zorionez zenbait burdin gorritzko negatibo eginda zeuden 1991n. Hauetatik berriro xaflak egin dituzte proiektukoek, bertan grabatutako musika digitalizatu ahal izateko. Jadanik xafla guztietako negatiboak eginda dituzte galbanizatze prozedura batez. 2014ko azaroaren 27an proiektuko bi kidek eman zuten hitzaldian garbi azaldu zuten kanta horiek ez dituztela sarean jarriko, interesatuei eta adituei baizik ez dizkietela helaraziko.

EUSKARAZKO KANTEN GRABAKETAK

UNTER FREMDEN VÖLKER



Ezkerrean, Doegenen liburuko irudiak:

"Frantzia hegomendebaldeko euskaldun bat" eta Heinrich Morf hizkuntzalaria Frantzia hegoaldeko gatibuez inguratuta (eskuinean dagoena Bearnoko patoisez kantatzen ari da). Behean: Tatar presoek grabatutako konposizio baten partitura.

UNTER FREMDEN VÖLKER



Euskal Kultur Erakundeak (EKE) grabaketen kopia bat dauka, Berlingo Etnologia Museoarekin hitzarmena sinatu baitu materiala helburu zientifikoetarako erabiltzeko. Bertako kide Maite Deliaartek dioenez, berrikitan material osagarria ere igorri diote Berlindik, grabazioen eta kantarien inguruko informazio zehatzagoarekin, baina horiek oraindik aztertzeke daude. Deliaartek EKE-arentzat idatzitako aurkezpen-txostenean dioenez, gutxienez hiru presoren ahotsak antzeman daitezke eta zuberera eta lapurtera dira erabiltzen dituzten euskalkiak; kanta gehienek izaera herrikoia dute. Salaberri mauletar legegilearen bildumako zenbait kanta daude, baita bertso jarri ezagunak edo Azkuek *Cancionero popular vascon* jasotakoak ere, Iparragirreraren *Gernikako Arbola* ez da falta esaterako.

"Berezia da euskaldunen musika"

Hermann Urtel erromanista Komisio Fonografikoko kideetako bat izan zen. Gerra amaitutakoan, zera idatzi zuen Doegenek argitaratutako *Unter fremden Völker* (Herri arrotzen artean) liburuan euskal gatibuez: "Frantziarren gatibu esparruetan interesik handiena herri


paregabe hark sortu zuen denbora guztian, alegia, azken mendean zientzialarien ardura etengabea izan duen Iberiar jatorrizko herri hondar [restvolk] honek, euskaldunen herriak. (...) Preso-esparruetan zeuden ehunka ordezkari ikusi ondoren ezin da besterik gabe 'tipo' uniforme bat antzeman. Txikiak, malguak, katu modukoak eta bizi-biziak zirenak ikusten ziren, aldiz handiak, tenperamentu isileko bizkarzabal figurak ere bai. (...) Frantziako hiru euskalki nagusien ordezkarietara mugatuta ginen, lapurtar, behe nafar eta zuberotar hizkeretara". Pena adierazten du Urtelek ez dutelako hegoaldeko 'tiporik' esparruetan euskaldunen ikerketa oso bat egin ahal izateko.

Komisioak euskal kantak eta kontakizunak ere grabatu zituen: "Guk badugu frantziar euskaldunen kanten eta ipuinen bilduma eder bat —dio Urtelek—, hoberena Salaberrirena da. (...) Berezia da euskaldunen musika. Benetako euskal kanta bati segituan antzematen zaio jatorria; doinu horiek bitarte melodiko motzetan mugitzen dira eta badirudi ez dutela inolako loturarik Europako beste herrialdeetako kantekin, albaniar kantekin ezik".

Derrigortuta kantatzen ote zuten?

Fonografoaren aurrean kantatzeko gati buak nola aukeratzen zituzten jakitea ez da erraza. Urtelek hizkuntza erromanikoetan mintzatzen ziren gati buak zituen begiz jota. Gerra Handian ari ziren herri erromaniko gehienak alemaniarren areriotzat zituen, eta soldadu gati buen esparruetan beraien hizkuntza ondo ezagutzen zuen "material ugari" aurkitzea espero zuen. Adituak zioenez gati buok pozik hartu zituzten Komisioko kideen egitasmoak, inork ez omen zion grabatzeari uko egin, gehienez lotsa adierazten zuten batzuk grabagailuaren aurrean. Orokorki beraien jatorriagatik edo gaitasunengatik aukeratzen zituzten aurrena, bigarren pauso batean, bai kantariei, bai hizlarietara kanta edo istorioaren testua bakoitzaren dialektoan idaztea eskatzen zieten. Paperean paratutako testua berriz, adituek gati buekin batera lantzen zuten eta segidan transkribapen fonikoa idazten zuten. Paperean idatzitako testu hori zen grabagailuaren aurrean errepikatu behar zutena, kantatuz edo esanez.

Badirudi Urtel zenbait euskal abesti grabatzerakoan bertan egon zela, George Schöne- man batera. Bigarren hau izan baitzen Komi-



Berlingo Komisio Fonografikoa

GERRA HANDIAREN hasierako bozkarioa jadanik desagertua zen Alemanian, 1915eko urrian Berlinen Prusiako Errege Komisio Fonografikoa sortu zutenean. Wilhelm Doegen filologoak urte hartako udaran Gerra Ministerioko lankide nagusiak konbentzitu zituen Komisio Fonografikoaren eginkizunaren beharraz: herrietako soldadu gatibuen hizkuntzak eta musika grabatzea. Hasierako finantza-ketaren zati garrantzitsu bat Alemaniako Enperadoreak jarrita, azkenik Prusiar Zientzia, Arte eta Hezkuntza Ministerioaren babespean sortu zuten instituzioa. Komisioaren bulegoa Berlingo Unibertsitateko Artearen Historia departamenduko gela batean kokatu zuten.

“Mundu Gerra hasi eta handik gutxira, Alemanian lojeatutako gerra gatibuen egonaldi behartua profitatzea bururatu zitzaidan ahotsen soinuaren grabaketetarako. Nire desio kuttuna ‘mundu guztiko herrien ahotsak, hizkuntzak eta musika soinu-diskoetan atxikitzea’ lortzear nengoen”, zioen Doegenek gerra amaitu ondoren argitara eman zuen *Unter fremden Völker* (Herri arrotzen artean) liburuaren hitzaurrean. Doegen hizkuntzala-

ria zen, baina ez akademikoa, horregatik aritu zen idazkari eta koordinatzaile lanean. Komisioaren lehendakari berriz, Carl Stumpf filosofo, psikologo eta musikologoa izendatu zuten; azken honek 1904an Berlineko *Phonogramm Archiv* sortua zuen. Parte hartu zuten zientzialarien artean hizkuntzalari anitz, musikologoak eta etnologoak ere bazeuden. Denera 30 aditu baino gehiago ibili ziren ikerketetan eta isilpeko eginkizuna izan zen gerrak iraun zuen denbora guztian.

2,5 milioi gatibuko “artxibo” erraldoia

Komisio Fonografikoaren lana ulertzeko, beharrezkoa da haien pentsamoldea Alemaniako ikerketa garaikideen testuinguruan kokatzea. Antropologia fisikoa, etnologia eta musikologia konparatua moduko diziplina gazteak oraindik sendotzear zeuden gerra hasi zenean.

Soldadu gatibuen esparruek egoera paregabea eskaini zien ikerlariei, bidaia arriskutsu eta garestiak saihestu eta era guztietako ikerketak Alemaniatik atera gabe egin ahal izateko, preso esparruetan sekulako aniztasuna baitzegoen. Lehen

Mundu Gerran Alemanian gatibu zeuden 2,5 milioi gizonen %70 errusiar armada-koa zen, beste %20 Frantziakoa, 185.000 preso inguru Britainiar Inperioko armada-koak eta hamar milaka gatibu Erdialdeko Potentzien aurka borrokan ari ziren herri txikietako armadako soldaduak. Jatorriz, berriz, herrialde askotakoak pilatzen ziren eremu itxi horietan: georgiarrak, amazighak, tatariarrak, korearrak, persiarrak, nigeriarrak, Errusian bizi ziren alemaniarak, sikhak, judu jatorriko ukrainarrak eta abar. Eta jakina denez, Frantziako armadan gerra hartan parte hartu zuten euskaldunak ere bazeuden.

Ikerlariek Erdialdeko Potentzien aurkari ikusten zuten preso esparruetako “munduko jendea” —euren idazkietan sarritan erabiltzen dute izen hori aliatuen armadak adierazteko—. Nolabait esateko, gailu haie-tan “harrapatzeko” zain zeuden soinu artxibo erraldoiak ziren; behin harrapatuta, betirako han izango ziren, nahi bezain beste kopia egin, soinuak ikertu, irakatsi edo entretenimendurako erabiltzeko. Horrez gain, gatibuen esparruak ikertzai-leen artxibatzaile mentalitatea joritu ahal izateko leku aproposak ziren.

Kalean da martxoko



aizu!

- Musikak ez ditu Piztiak otzantzen
- Hizkuntz eskubideak kolokan
- Pasaka berreskuratzen
- Euskaldunak Lehen Mundu Gerran
- Agin Laburu arin-arin
- Korrika 19, non eta noiz?

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org



sioko xafila guztiak grabatu zituen. Schünemann musikologoa zen eta preso esparruetan musika grabaketak egiteko arduradun izendatu zuten. Berak Edison markako fonografo bat erabiltzen zuen grabaketetarako. Fonografo horiek argizarizko xafletan gordetzen zituzten soinuak. Argizarizko xafletan gordetzeko teknika soilagoa zen eta maneatzeko errazagoa, diskoen teknika baino. Horregatik Schünemann preso esparruetara joaten zenean itzultzaile baten laguntza baino ez zuen behar izaten.

Baina kanten transkribapenik ia ez dago. Galdu egin ziren ala ez ziren inoiz egin, hori ez dakigu. “Deigarria da zenbat eta zein gutxi sortu zuten gatibuen eremuetan ibili ziren ikerlariek beraien jakintza arlotan”, dio Monique Scheer kultur zientzialariak 2010ean gai horretaz argitaratu zuen artikuluan (*Captive Voices: Phonographic Recordings in the German and Austrian Prisoner-of-War Camps of World War I*). Musika grabaketa hauetatik Schünemannek bakarrik argitaratu zuen bere “Habilitazioa” –2. doktoradutza– 1923an.

Schünemannek utzi zituen idazkietan adierazten du gatibuak poztu egiten zirela beraien ahotsa entzutean eta batzuetan presoak ere itzultzaile lanetan aritzen zirela eta beste kide batzuei kantatzea proposatzen zirela. Edison fonografoak grabaketak egin ondoren orratza aldatu eta entzuteko aukera ematen zuen. Tresna berri haren aurrean beldurra kentzearen grabaketak berehala jartzen zizkieten askotan entzungai presoek. Esparruan behartuta zeuden lanetatik libratzea zekarren zeregin horretan parte hartzeak. Kantatu nahi ez zutenei zigarroak eskaintzen omen zizkieten. Grabaketak gehienetan horre-

Grabaketak egin ziren garaian soldadu euskaldunak Turingiako Estatuko Rottleberode herrian zeuden preso eta bertako zerrategian egin behar izan zuten lan. Irudian, gatibu “frantziarrak” Turingiako gefangenlager edo preso esparru batera doaz oinez.

tarako prestatutako geletan egiten ziren, soinukalitate hobereana lortu ahal izateko. Geletan ikatzeko berogailuak egoten ziren, baita gati- buak behatzen zituzten zaindaria ere.

Identitateak eta botere erlazioak

Soldaduak beraien armadatak batailoietan jatorriaren arabera zeuden sailkatuta gehien- tan. Soldadu gatibuak beraien uniformeak gordetzen zituztenean begi-bistakoa zen haien sailkapen militarra. Gizon gatibu horiei militarra eta etnikoa ez ziren beste identitate zeinu guztiak kendu zizkieten. Egun batetik bestera behartuak izan ziren esparruetako egoera “multikulturalean” bizitzen. Soldadu euskaldunak grabaketak egin ziren garaian Rottleberoden (Sachsen-Anhalt) zegoen eremu- an zeuden preso. Eremu hartan preso zeuden soldaduek bertako zerrategian egin behar izan zuten lan.

Grabaketetako kantari euskaldunak preson- degi batean, edo akaso gehiagotan, urteak egin zituzten soldaduak ziren. Oraindik ez dakigu handik bizirik atera ziren ala ez; gerra amaie- ran bizirik jarraitu zutenek zer egin zuten ere ez. Gerra Handian parte hartu zuten euskal soldadu guztien ordezkari, aldi berean gerra aurretik bizitza pribatua zuten pertsona libreak ziren.

Galdera asko daude oraindik erantzun gabeak. Aurrerantzean egingo diren ikerketek euskal- dunen memoria historikoa lan- tzeko edo argitzeko prozesuan urratsak emateko balioko dute. Bestalde, grabaketak egiterako- an euskal presoek eta alemaniar


adituen arteko botere erlazioa aintzat hartu beharko litzateke, bestela, grabaketa haiek egin ziren egoera egalitarioaren fantasia errepika- tzeko arriskua baitago. ■

Xaflak erabiltzen diren aldi bakoitzean hondatuz doaz, argizaria oso biguna delako. Zorionez zenbait burdina gorrizko negatibo eginda zeuden 1991n

LURRALDEBUS



SAREA ZABALTZEN



MARTXOAREN 1ETIK AURRERA, AUTOBUS ZERBITZU BERRIAK

Urola Erdian, Urola Kostan,
Debagoienan eta Debararrenan

Zerbitzu berriak ezagutzeko:



MIGUEL ZUGAZA

«Museo bat bisitatzea zarata mundanoen zurrumbiloari uko egitea da»

“Udaberria loratu da, lorontzi baten barruan...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Zure haurtzaroa museo bat balitz...

Gure etxea faktoria kulturala litzateke. Ama aski trebea zen pintaketan, eta aitaren [Leopoldo Zugaza] ekarpena azpimarratzekoa da azken hamarkadetako euskal kulturaren. Kultur ekimenak egosten ziren eltze batean sortu ginen. Argitaletxe baten sorreraz hausnartzen zen, Durangoko Liburu Azoka martxan jartzeaz, aitaren Bilboko Arte Ederren Museo-ko jardunaren lehen printzak iristen zitzaizkigun, Rafael Ruiz Balerdi edo Eduardo Chillidaren muntako artistak etortzen ziren bisitan... Aspirinak uretan baino eferbeszentzia gehiago zegoen geurean. Aldaketa bete-ko mundu batean sortzeko zoria izan dugu, eta umezaroan aldaketa horien lekuko zuzen izan arren, apenas hartu dugun parte heldu-aroan mugitu garen errealtatearen sorreran. Oharkabeko apendizak ginen. Orain profesionalki egiten dudana txiki-txikitatik bizi izan dut etxean. Orduan arnastutakoa betiko gelditu zait.

Bizitza eta mundua ulertzeko arnasa da artea?

Arnasetako bat. Arteak hainbeste liluratsen bagaitu, bidean seinaleak jartzen dizkigulako da, dugun eta izan dugun mundu ikuskeraren itzultzaile behinena delako. Hondorik gabeko ontzia da artea eta jakintza, historian metatutako aurrerapena eta gizakiaren anbizioa pausatzen dira bertan. Ez da alferrik egungo artea garai nahasi baten isla. Bizi ditugun nahi eta ezinak zein paradoxak agertzeaz gain, izugarri desmaterializatu da. Gutxiago du objektutik eta gehiago pentsamendutik. Hori hala, Santimamiñe edo Altamirako artista anoni-

moen garaian bizi zen lekuan bizi da artea: mundua norbere erara erreproduzitzeko bulkadan. Formak, fazeta artistikoak edo ñabardurak aldatu arren, historiaurretik gaur arte oso gutxi mudatu da artearen funtsa.

Zertan datza museo on baten funtsa?

Museo on batek obra zoragarri bezain garrantzitsuak kontserbatzeaz gain, gertatu dena nahiz gertatzen ari dena aztertu, ulertu eta gizakia denboran zehar zer izan den agertu behar du. Museoaren balorea oso lotuta dago kontserbatzen dituen bildumen ondareari, baina ondare orok beste gorputz bat hartzen du heziketa publikorako tresna bihurtzen denean. Horregatik zaio ezinbestekoa museo bati daukana jakintzaz jantzi eta jendarteari arrastoa uzteko gisan transmititzea. Alabaina, ez gaitezen engaina, museo baten arrakasta ez da bisitari kopuruaren arabera neurtzen. Hori arrakasta literarioa salmenta kopuruaren arabera dela aldarrikatzea litzateke. Adierazle bat dela? Ados, baina ezin gaitu gure eginbidetik desbideratu. Museo handi bat bisitari kopuruaren arabera epaituko bagenu, eta museo horrek ez balu bere iparra argi, bere misiotik desbideratu eta bere ortodoxiari traizio egiteko arriskua leukake bisitari kopurua emendatzeagatik soilik. Horrek ez dauka zentzurik. Pradoko zuzendari naizen 13 urteotan erreferentziazat dauzkadan erakusketak ez dira bisitatuenak izan. Ekarpene kuantifikatzea nekeza izan arren, museo batek ezin die erakusketari horiei uko egin. Bere zinezko misioan sinesten badu, aurrera egin behar du.



NORTASUN AGIRIA

Miguel Zugaza. Durangon sortu zen 1964an. Historia eta Geografian lizentziatua eta Artearen Historian espezializatua, Reina Sofia museoko kontserbazio zuzendaria izan zen 1994tik 1996ra. 1996an, Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendari izendatu zuten, 2002an Madrilgo Prado museoa zuzentzera pasa zen arte. 13 urte geroago hantxe jarraitzen du. Leopoldo Zugaza kultur eragile ezagunaren semea da.

Atzera eginez, Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendari izan zinen 1996tik 2002ra.

Aldaketa aro bat zen: Bilbo eraldaketa prozesuan murgilduta zegoen, Guggenheimen eraikuntza sasoia zen. Aldaketaren ikurrak kultura eta artea baldin baziren, Arte Ederren Museoa ezin zela armairuan gorde ulertaraztea izan zen gure azertua. Horri esker lortu genuen Guggenheimen haizea alde jartzea. Bernardo Atxagak ezin hobeto definitu zuen bi museo-en arteko harremana. Berpizkundeko katedral

batekin konparatu zuen Bilbo, non katedral handiaren eraikuntza baliatzen zen baptisterioari argia emateko. Horregatik diot Guggenheim zinezko ekarpena dela bai artearentzat bai Bilborentzat. Oso gutxi dira munduan eraldaketa arte museo baten inguruan ardazu duten hiriak. Urbanismoari eta ekonomiari eman dionaz gain, artearen ikuspegi global oso aberats batez zipriztindu du Bilbo.

Hitz egingo genuke Guggenheimen ekarpen artistiko eta kulturalaz bere pisu ekonomikoa hutsaren hurrena balitz?

Museoaren eragin ekonomikoa itzalpean utzi du bere ekarpen artistiko eta kulturala. Arkitektura egitasmoaren ausardiak eta ikusgarritasunak begiradak azalarekin itsutu arren, mamia izugarri zaindu duen museo batez ari gara. New Yorkeko eskaintza dauka, non eta Bilboko zabalgunean! Oso museo gutxi daude munduan artista baten alde Bilboko Guggheimen Richard Serraren alde egin duen lege apustu egin dutenak. Oso erosketak onak egin dituzte, kulturaren mendo-

MIGUEL ZUGAZA

nalizazioari eta frankizia izaerari aurre egin diete nortasun propioa lortzeko... Ez gara ohartzen zer den Europako museo erakargarrietakoa Bilbon egotea eta ez Parisen, Londresen, Berlinen edo Madrilan. Herrenak dituela? Konforme, baina bere dimentsio kulturala injustuki larrutu dela uste dut.

Erakargarritasunaz ari gareno, zergatik dakit museo batera sartu aitzin zeintzuk diren nahi-taez ikusi beharreko lan gorenak?

Sinesgaitza iruditu arren, ez dago jendartearen gustua baino aldakorragorik. Egun argiki bereizten ditugu Pradoko maisulanak, baina 1819an, museoa zabaldu zenean, beste batzuk ziren gurtzen ziren obrak. Orduan Rafaelen *La Perla* zen egun Velázquezen *Las Meninas* dena. Horregatik diot museo batek ez dituela bere obrak ikono bihurtu behar. Zer gertatzen da Louvren? *Gioconda* ikusteko erronesaldiak beste obrak gutxien dituela. Nahiago dut kalitatezko obra asko ukan ikono bihurtutako maisulan bakarra baino. Maisulan horrek gehiegi baldintzatzen du bisita, erabateko itzala egiten die ingurukoei, museoa hankamotz utziz. Pradora itzuliz, sinetsita nago noizean behin *Las Meninas* tapatu behar genukeela jendeak gainontzeko obrak gehiago preziatu ditzan. Publikoarekiko ardura bat daukagu, bisitari inteligente bihurtu behar dugu jendea, irudikatzen ez dituen lanak jarri behar dizkion bidean. Museo guztietan daude altxor ezku-tuak, eta horiek topatuaraztea bezalako osasun sintomarik ez dago museo batentzat.

Osasun sintoma da obra batek bere burua defendatzeko hainbesteko diskurtsoa behar izatea?

Arteak badu hitzekin azaldu ezin litekeen aura bat, baina batzuetan auraz beste egin

“Ez gara ohartzen zer den Europako museo erakargarrietakoa Bilbon egotea. Herrenak dituela? Konforme, baina bere dimentsio kulturala injustuki larrutu da”

eta obrak hitzez kargatzen ditugu. Esaterako, oso gutxi dakigu Velázquezen aipu eta usteez, baina bere obrek gure interpretazioa kitzikatzen dute, kasik iritzia ematera behar-tuz. Artea elkarrizketa, inpresio, sentimendu eta aldarte sortzailea da berez. Besterik da hori marketin bihurtzea. Are gehiago, nire ustez museoek ez lukete marketinik egin behar. Ez gaude produktu bat merkatuan kokatzeko. Museoan egiten dugun lanak oihartzuna izatea nahi dugu, ahal bezainbat jenderengana iristea dugu xede, baina mar-

ketin klabeetan pentsatzeak gure oinarritzko misioa lizundu-ko luke. Hori hala, garbi daukat artean edertasuna eta jakintza txanpon beraren alde biak direla. Pradora gauza ederrak soilik ikustera bazatoz, altxorraren zati handi bat galduko duzu bidean. Artea eza-gutza sistema bat baita, ideien unibertsoa eta mundu erreala

uztartuz jakintzan aurrera egiteko tresna bat, eta maisulan bat ez da sekula maisulana izango ongi pintatuta dagoelako soilik. Artea beti da begirada batean dirudiena baino konplexuagoa.

Nola uztartzen dira exijentzia intelektuala eta orotariko publikoari zuzendutako eskaintza?

Artea ez da entretenimendu hutseko lur bat. Ezin diozu jendeari besterik gabe ongi pasatzera etortzeko esan. Jakin-mina duenak, iraganetik ikasi nahi duenak, edo artea ezagutza tresnatzat duenak ederki pasako du, baina besteentzat ez daukagu miraririk. Ezagutzaren bide-zidorretan barnako akui-lu eta heldulekuz josita dago Prado, baina zuk egin beharko duzu bidea. Nire erronka gorena ez da bisitarien ongi pasa eta gozatzera soilik, irteeran sarreraren baino jantzia-goak izan daitezen nahi dut. Hala, museoetara datorrena jendartearen elitea dela diote

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015

www.bertsozale.eus/araba

6. FINALAURREKOA

MARTXOAK 7, larunbata, 17:30ean
LANGRAIZ OKA, Gizarte Etxean

Gai-emailea: Veronica Domingo Ormaetxea



Paula
Amiliburu
Izagarral



Jagoba
Apacloza
Kastro



Ander
Sokozabal
Kortabarria



Iker
Pastor
Rodriguez



Xabier
Igoa
Eriz



Zigor
Enbelta
Zugaradi

Babesle nagusiak:

- Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alaia.net
- udapa
- LABORAL Kutxa
- Vital gizarte ekintza
- artepan

Udala: Langraiz Oka-udala

Antolatzailea: bertsozale

argia

zenbakiek. Iaz, 2,5 milioi bisitari izan ziren gurean. Asko da, izugarri, baina ez uda Ibizan igarotzen dutenak beste. Bidaiaitzeko aukerak ugaltu arren, oraindik ere pribilegiatu batzuk dira Madrilera etorri eta Prado bisitatzeko denbora eta sosa dutenak. Horrek arlo digitalean sakontzera eraman gaitu. Artea demokratizatze bidean, gure lan eta bildumak jarri ditugu sarean zintzilik. Orain hamar urte tabua zen, arima deabruari saldu izana leporatzen ziguten, baina gure eginkizunaren hedapen kanal zoragarria da internet.

Atzerrian museoak bisitatzen dituenak nolatan ez ditu bere inguruko museoak zapaltzen?

Ulergaitza zait. 2007an, Pradoko handitze lanak inauguratzean, inguruko herritarrek museoarekin harreman bat proposatuz limurtzen tematu ginen. Zergatik? Inaugurazio aurretik madrildar baino iparramerikar gehiago hurbiltzen zitzaizkigulako. Hori oso seinale eskasa da, zerbait oker egiten ari zarenen sintoma. Urrutikoa auzokoa baino errazago konbentzitzen baduzu, komeriak! Zorionez, erakusketa ezberdinei esker, bertakoen arreta berreskuratu dugu. Museoa etengabe azalberritzeko balio digute. Museoak ez direla aldatzen uste baitute askok, behin bisitatu eta betiko ikusita geratzen direla, baina museo on batek beti eskaintzen dizu txinparta berri bat, ordura arte zabaldu ez zenuen ate bat.

Txinpartak ez, azkenaldi luzeko diru-laguntza publikoen murrizketek kea eragin dute.

Horregatik diot akademikoki sasoi itzelean gaudela, baina baliabidez herren. Azken hiru urteetan aurrekontu publikoaren %60 murriztu digute. Gure bildumari eta lantalde osoaren jakintza eta ekinari esker goaz desertuan aurrera. Ikusi besterik ez dago, Louvrek 100 milioi euro jasotzen ditu urtero diru-laguntza publikoetatik, Pradok 12 milioi, eta hala ere, liga berean gaudel! Demaseko ahalegina egin dugu gure aurrekontuak diru-sarrera propioekin orekatzeko. Azken bi urteotan, gure aurrekontuaren %70 autofinantzatua da. Pradoren oinarritzeko baloreak eta tamainak ahalbidetzen dute lorpen hori, baina gurea ez da museo guztiei aplikatu dakiekeen araua. Ez gaitzatela murrizketak justifikatzeko erabili, ez delako bidezkoa batetik, eta gu ere muga-mugan gaudelako bestetik.

Galdera inozo bat: zergatik murrizten da lehenik eta gehienbat kultura?

Autokritikoak izanez, ez dugu jendartea konbentzitzen jakin, ez diogu kultura lehen-





AZKEN HITZA

Gernika

"Gernika bere papera egokien betetzen duen lekuan egongo da. Gaur egun, Reina Sofia museoa intelektualki eusten duen artelana da, baina horrek ez du kentzen Picassok Pradori eskaini ziola Gernika. Horregatik, galdera ez da non bukatuko duen Gernikak, XX. mendeko artearekin zer egingo dugun baizik. XXI. mendean aurrera joan ahala non erakutsiko dugu XX. mendeko artea? Galdera horren erantzunak markatuko du Gernikaren etorkizuna".

tasunezko zerbitzu publikoa dela ikusarazi. Osasungintzan edo hezkuntzan murrizketak iragartzen badira jendea mobilizatzen da, baina kultura kolpatzen denean nor ateratzen da kalera? Ez daukagu kultura ez ukitzeko aldarrikatzen duen jendarterik. Inglaterra, museoak doakoak dira eta hori aldatzen saiatu direnero erantzun du jendeak. Bitartean, gu ez gara gai izan agintariak museo bat zabalik mantentzea ospitaleko gela edo ikasgela bati zabalik eustea

bezain beharrezkoa dela ohartarazteko. Baina zergatik ez ditugu agintariak konbentzitu? Jendartea konbentzitzeko gai izan ez garelako. Jendartearen presioa kokotean sentitzen ez duteno, politikariek berdin jarraituko dute.

Berehalakotasunaren eta etengabeko estimuluaren selfia da jendarte hau. Museoeak, alta, pausa eta denboraren perspektiba eskatzen dute. Bateragarriak dira?

Iragan zein geroari so, ezinezkoa da gure garaia kutsatu gabeko esperientzia lantzea. Horregatik diot parentesia dela kultura. Museo bat bisitatzea zarata mundanoen zurrunbiloari uko egitea da. Ez da tenplu sakratu batean sartzea, baina bai denborak beste dimentsio bat duen eta ideiak airean zintzilikatzen diren mundu batean murgiltzea. Ez da kasualitatea Pradon argazkiak hartzea eta smartphonen erabilera debekatu egotea. Horregatik kritikatzeko gaituztela badakit, baina nik jendea obrak ikustera etortzea nahi dut, ez selfiak egitera. Ez nago trepetatik teknologikoen aurka, baina hori da obra gozatu eta jendeak tabletari ez begiratzeko topatu dugun modu bakarra. ■

Ezkutuko amandreak argitara

27 emakume, 27 istorio eta 27 bizibide jaso dituzte Ezkutuko Amandrea proiektuan. XX. mendeko emakumeen bizimodua nolakoa zen ezagutu guran, Lekeitioko emakumeak elkarriketatu dituzte, liburua eta dokumentala osatuz. Jasotakoa kontatu digu Ale Goikoetxea, egileetako batek.

| ALE GOIKOETXEA |



AITTTTA TXIKI

LANA hasi genuenetik denbora asko pasatu da. Tarte horretan hogeita zazpi emakumeren testigantzak jaso, eta egungo Lekeitio ulertzeko ezinbestekoa zaigun iraganari beste kolore eta xamurtasun batez begiratzen ikasi dugu. Itsasoa entzun eta lehen ez bezala, arrain kaxa pisutsuak alde batetik bestera garraiatzen zituzten emakumeak etortzen zaizkit orain burura. Fabrika hitzarekin oster, zortzi, hamar edo hamabi orduz antxoei burua kentzen lan egiten zuten emakumeek betetzen dituzte nire gogoe-tak. Gerra garaiarekin aldiz, kartzelan jaio ote zen gaur egun oraindik ziur ez dakien emakumearen zalantzek ordezkatzeko dituzte ordura arte gerraren gordintasunaz entzundakoak.

Lan honen bitartez, eskola ia zapaldu ere egin ez duten emakumeak ezagutu ditugu. Gerra Zibilaren aurretik, artean neskato zirela eskola utzi eta lanera atera behar izan zuten. Matilde Arrasatek esaterako eskolan izan denik ere ez dauka gogoan, neskame joan behar izan baitzuen umea zela. “Ez nintzen joan, *bapez!* Atzean neukan koadrila eta ezin joan, nik negar

Lekeitioko kabanen (arrain fabrikari), beharrean. Gizona arrantzaren arduraduna izaten bazen ere, portuko lan guztiak emakumeek egin ohi zituzten.

egiten nuen, eskolara joan nahi nuelako” gogoratzen du oster, Gregori Goitiak.

Euskarazko izenak jomuga

Gerraostean eskolan izan zirenak ere ez zituzten garai xamurrak igaro. Euskararekin borroka handia izan zen Lekeitioko ikastetxeetan. Eskola guztiak gaztelaniaz hartzen zituzten. Ikasleek debekatuta zuten irakasleekin zein beraien artean euskaraz egitea eta zigorra zen arau hori betearazteko bidea. Irribarretsu gogoratzen du Mila Mendiak euskaraz hitz egiteagatik mojek “*a barrer, a barrer*” agintzen ziotela. Baina auzi gatazkatsuen euskarazko izenen kontrakoa izan zen. Frankismoko mojek euskarazko izenak gaztelaniazkoengatik ordezkatzeko erabaki zuten. Maria Milagros Arrasatek bere ikasgelan legea ezarri zuten una gogoratzen du; ordutik aurrera Karmele Carmen izango zela, Miren Maria, Maitena Amanda... Kartoizko maleta hartu eta “banoa” esan zuen Arrasatek, “niri ez dit inork izena kenduko”, eta gehiago itzuli ez.

EMAKUMEAK XX. MENDEAN

Emakume bakan batzuek baino ez zituzten goi mailako ikasketak burutu, gehienek lan mundura jauzi egin behar izan baitzuten. Teodora Goitizek esaterako, irakasleak ikasten jarraitzeko gomendatu arren, etxean dirurik ez zela eta okindegian hasi behar izan zuen lanean 12 urte baino ez zituenean. Neba-arreben artean gainera, bakarren bati ikasteko aukera aitortzen bazitzaion, mutilak izaten ziren zer edo zer ikasi ahal izaten zuten bakarrak. Terese Eigurenek ere, suminduta gogoratzten du beraien etxean hiru neba-arrebetatik bakarrak ikasi zuela, mutilak.

Lanordua kantuan eta kontu kontari igarotzen bazituzten ere, ordutegi barik eta baldintza gogorretan egin ohi zuten lan. Sarri asko gainera, gizonen baino alogera baxuagoak jaso ohi zituzten. Itxaropena Bengoetxeak gaztaroko sasoi arrain fabrikara lotuta eman zuen: “Ordu asko. Ez genuen ordurik. Hantxe beharra amaitu artean, ez genuen ordurik. Binaka enkargatuaren etxera jatera eta bueltan kabanara [arrain fabrikara]. Egoten ginen gaueko zazpiak arte, baina gero, ostera ere deskantsatu eta zortzi eta erdietan hasi eta hamabi eta erdiak edo ordu bata arte beharrian. Halantxik zela eta halantxik. 16 ordu egin behar zen beharra, 16. Zortzi egin behar baziren, ba zortzi. Gauza zetorren modura. Edukitzen genituen umeak eta egun batzuetara kabanara ostera ere beharrian. Baina beti pozik! Beti umore onean! Orduan kabanetan, egun guztian egoten ginen kantatzen”.

Lanera gazte joandakoek beraien soldata amari eman behar izaten zioten, etxean amak izaten zuelako ekonomia kudeatzearen ardurara. Hala eta guztiz ere, gerraostean oraindik neska eta mutilen alogeran ezberdintasun handiak egoten ziren. “Sarritan esaten nuen nik: gizonen beharrak egiten gaude eta andreen diruagatik. Behar asko eta diru gutxi”, dio Teodora Aboitizek.

Gizona arrantzaren arduraduna izaten bazen ere, portuko lan guztiak emakumeek egin ohi zituzten. Dei egitekoek gizonak itsasora joateko deia darrez esnatzen zituzten, sare-eginek aldiz, apurtutako trainak konpondu, eta arrainak itsasontzitik kamioietara garraiatzen ere emakumeak ibiltzen ziren, arraina saltzen... Gregori Goitiz arrantzaletan azpian deiez aritzen zen, goizeko bostetan: “Fulanooo gora jaungoikoaren izenean itsasora joateko!”. Bittori Larreategik ostera, portuan harri ikatzak buruan hartuta gogoratzten ditu garaiko emakumeak.

Tartean Gerra Zibila bizitzea ere egokitu zitzaion emakume askori eta ez zuten gutxi sufritu. Ilea moztuta eta errizino-olioa edan



Herriak herriarentzat egina

Leketio herri txikia izanik, nahi baino arinago zabaldu zen bi neska hirugarren begia lepo gainean hartuta herriko emakumeak itauntzen genbiltzala. Jakin-minez, prestutasunez eta ekarpenak egiteko irrikaz gerturatu zaizkigu herritarrak. Aulkiak alde batetik bestera mugitzeko, argazki zaharrak ekartzeko, musika jartzeko, aktore lanetan aritzeko... Ordu txikiak arte lan egitea egokitu zaie batzuei, eta denok ala denok osatu dugu gure herri txiki honetako historia biltzen duen lan xume hau.

ondoren kalerik kale erabili zituzten, edo gizona espetxean izan eta etxe gabe laga zituzten, edo gudarien zaindari eta erizain aritu ziren mugaz harago...

Hegazkinen hotsa entzun eta koba edo ezkutalekuetan hartzen zuten babes gerra sasoiaren Lekeition geratu zirenek. Jolas moduan

gogoratzen ditu Josune Torrealdaik une haiek: “Kobetara arin-arinka. Abioia ikusten genuerako ezkuta. Bazkaria ere, amak-eta arinago eginda errotan zuten, eta koban geundela, hantxe jaten genuen bazkaria. Gero kurika... Olgetan ibiltzen ginen eta kanpaiak jotzen zuenean... dza!”.

Testuinguru hartan, belaunaldi hauei gaztaroa Elizaren begiradapean bizitzea egokitu zitzaion. Giza harreman eta jarrera guztiak baldintzatuta zeuzkaten. Orduko moralak finkatutako patroiak jarraitu behar zituzten, horien artean izaera egokia taxutzeko jarraibideak. Jantzera, esaterako, zintzotasunaren edo ganoraren ezaugarria zen. Karmen Murelagak irribarrez oroitzen du herriko abadeak emakume bat elizkizunetik kanporatu zuen unea, prakak jantzita joan zelako elizara.

Sexuari buruzko uste okerrak

Mutilekin izaten zituzten harremanetan bizitako ikara eta tentsioak azpimarratu dizkigute, ezkutuan ibili beharra. Harreman horiek oso azalekoak izan behar zuten, nobio garaian behintzat. Gutxi batzuek ez ezkontzeko erabakia hartu bazuten ere, gehiengoak, bizi-legeari jarraituz, “gizon ona bilatu eta ezkondu” egiten zen. Une horretara arte, gizonekin hain estu sekula egon gabeak ziren emakume gehienak. Tere Eigurenek aipatu digu sexuari buruz aurrez entzundakoak eta ezkontzaren ostean izandakoak ez zirela bat etorri: “Libre zenuela sexua, baina gehiago ez genekien! Eta nahi ez bazenuen ere, egin behar *sexo*”. Ane Miren Sustaetak berriz, entrenamendu falta nabarmendu du algararen artean, “honela izaten dela eta bestela izaten dela, ba kalean enteratzen zinen. Eta ez ginenez joan entrenatuta, ba lehenengo gauari itxaron behar”.

Ezkondu eta umea ekartzea zen emakume hauen betebeharrak nagusia, umerik ekartzen ez zuenari kapoia zeritzon. “Ezkontzen zinen eta lehenengo misioa umea ekarri behar. Derrigor zen umea ekartzea”, dio Sustaetak. Arrasateren hitzetan, “ez zegoen telebistarik, ez zegoen irratiarik; afaldu, argia ez gastatzearen neguan zortzietarako ohean, eta honetarako, horretarako eta besterako denbora zenuen, eta ume asko ekartzen ziren”. Seme-alabak etxean eta halamoduz ekarri zituzten mundura elkarriketatu ditugun emakume

ITXAROPENA BENGOTEXEA



AITZIBER IZAGIRRE



nagusiene. Teresa Erkiagak harrotasunez dio zazpi haurrak etxean izan zituela, auzoko emakume baten laguntzaz.

Ezkundu ostean, emakumeek bere gain hartzen zuten etxearekin zerikusia zuen guztia. Gizonak kanpoan egindako lanaren diru-saria etxera ekartzeaz arduratzen ziren. Etxeko nagusiak eta seme-alabak jagon eta hezteko ardura emakumearena zen, eta sarritan ama eta alaben artean banatzen zituzten lan horiek. Garaiko ezkontza kontratuak banaezinak ziren. Hori dela-eta, emakume ugari eutsi beharraz mintzo dira. “Aguanta! Hantxe aguanta! Nik neuk bai behintzat. Gaurko gazteak nik eroan neban bizimodua eroatekotan, apartatuko ziren denak”, dio Karmen Murelagak. Egoera ezin jasan eta alkoholean penak itozteko hautua egiten zuten emakumeak ere izan ziren, baina gizonak ez bezala, etxean eta ezkutuan edaten zuten.

Heriotzak soilik bana zezakeen ezkondutako bikotea. Mari Tere Gabiola alargun geratutako emakumeen egoeraren inguruan mintzo da: “Negar egiteko astirik ere ez! Hurrengo egunean beharrera joan behar, bestela jatekorik ez. Alargunak txarto eta batzuek esaten zutena, batzuk ezkondu beha-

Ezkerreko irudian, 300 kiloko kupela garraiatzen.

Eskuinean, sare-eginak, apurtutako trainak konpontzen. Kostako herria izanik, arrantzarekin lotutako lanbideak ziren nagusi Lekeition, ezinbestean.

rragatik. Orduan umeak ere asko zeuden, hiru edo lau ume. Zeure beharraz haiek umeak zelan altxatuko zenituen, ezinezkoa!”.

Herriari egindako ekarpena zenbaczina da. Emakumeok beren hondar alea jarri zuten han eta hemen: euskalgintzan, ikastolen sorreran, herrigintzan eta baita politikan ere. Sustaetak adibidez ikastolako sortze eta eratze prozesuan emakumeak gogoratzen ditu buru-belarri lanean. Emakume zintzo eta eskuzabalak ziren kostako emakume kresaldun hauek, Angela Uribarrenen esanetan: “Didarra egiten zuten, zarata, baina bestela eskutan bihotza zuten andreak ziren”.

Gaur, askatasun eta baliabide gehiago dituzte emakumeek. Etxetik kanpo lan egin dezakete, soldata jaso (nahiz eta beti parekoak ez izan), aukeratutako ikasketak egin, ezkontza-konpromisoa legez apurtu, gura duen momentuan seme-alabak izatea erabaki... Guk aurreko belaunaldietako emakumeen oinordetza jaso dugu, ondare aberatsa hartatik ikasten jarraitzeko, gorde beharrekoa gordez eta aldatu beharrekoa aldatuz. Baina, batez ere, jakinez norberaren baitan ernatu eta hazten dela norberaren oinarriko askatasuna. ■

FEMINISMOAZ DANOK AURRERA GOAZ MARTXOAK 8



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN





INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Mendebaldea eta disonantzia kognitiboa

PSIKOLOGIAN, DISONANTZIA KOGNITIBOA gertatzen da pertsona baten ideia, sinesmen eta jarreraren arteko talka gertatzen bada, adibidez, gatazkan dauden bi pentsamendu mantentzeagatik edo norberaren baloreei kontra jartzen zaion portaera izateagatik. Bestela esanda, pertsona batek inkompatibilitate kognitiboa duten bi pertzepzio baditu aldi berean, orduan bere jarreretan inpaktua izan dezakete ideia eta sinesmen berriak sortuz edota lehentasunak aldatuz, betiere bere kontraesanak gutxitu eta ahal bada desagerrarazteko asmoarekin.

Disonantzia kognitiboarekin Mendebaldeak nazioarteko politikan duen moral bikoitza estali baino lurperatu egiten du. Jakina da Putin deabru bat dela eta errusiarrek umeak jaten dituztela, baina hori ez da nahikoa, batez ere arazo “txiki” batzuekin topo egiten denean: frogak. Ukrainako krisian eta gerran Mendebaldeak kontakizun (ipuin) bat sortu du bere demokrazia eta giza eskubideen aurkako jarrera justifikatzeko, hain zuzen ere hor dago disonantzia, balore horiek baitira defendatzen omen dituenak.

Urtebete pasatu da eta orain BBCk onartu behar izan du, ezin zela Janukovitxi errua botatzen jarraitu, bestela bere sinesgarritasuna hondoratu egingo litzateke, baina diskurtso berria prestatu du: frankotiratzaileak Errusiaren zerbitzura zeuden. Negargarria.

Maidaneko manifestarien parte garrantzitsu batek European azkeneko hamarkadetan ikusi ez den biolentzia eta sinbologia faxista erabiltzen zituela? Maidanen masakrea gertatzen dela? Janukovitx errudun. Gertakariak pasatu eta bi aste beranduago, elkarrizketa pribatu batean Estoniako kanpo harremanetarako ministroak EBko kanpo gaietarako arduradunari adierazi zion hipotesi sinesgarriena zela frankotiratzaileak Maidaneko oposizio

sektore bat izatea eta gainera, gobernu kolpista berriak ez zuela ikertu nahi. Gero hamarnaka informazio eta dokumental etorri dira bertsio hori babestera, besteak beste, Alemaniako telebista publikoak eginkoa. Urtebete pasatu da eta orain BBCk onartu behar izan du, ezin zela Janukovitxi errua botatzen jarraitu, bestela bere sinesgarritasuna hondoratu egingo litzateke, baina diskurtso berria prestatu du: frankotiratzaileak Errusiaren zerbitzura zeuden. Negargarria.

Frankotiratzaileen aferra horrek Janukovitx derrigortu zuen 2014ko otsailaren 21ean akordio bat sinatzera oposizioarekin. Bitartekariak Frantzia, Polonia eta Alemania izan ziren. Ordu gutxi batzuetan oposizioak akordioa hautsi eta parlamentua okupatu zuen. Ehun diputatu baino gehiagok ihes egin zuten eta presidentea legearen kontra kargugabetu zuten indarrez. Gobernu berrian besteak beste Svoboda alderdi faxistaren ordezkariak zeuden, urtebete lehenago Europar parlamentuak kondenatu zuen alderdia.

Odesan Maidaneko jarraitzaile batzuek 40 pertsona baino gehiago erre eta erail zituzten. Bestalde, Kievek deszentralizazio eskaerak ukatu, erabakitze eskubide prozesuak jazarri eta inbasio gerra bat hasi zuen Donbass eskualdean. Kolpistek hasi zuten gerra autonomia eta sezesio eskarekin kontra. Bitartean, Baltikoko herrialdeetan sorgin ehizan daude barneratuak: Estonian italiar europarlamentari ohi bat atxilotu eta deportatu zuten konferentzia bat eman ez zezan. Lituania eta Letonian kable bidezko telebista kate baten emisioa ezabatu zuten; politikari abertzale lituanierak atxilotu edo epaitegietan salatu dituzte beren iritzi politikoengatik, eta Lituaniak polizia berezia sortu du, besteak beste, administrazio publikoak eta enpresa pribatuak presionatzeko iritzi politiko zehatz batzuk dituzten langileak kaleratzeko. Izan ere, John Frederick Charles Fuller-rek azaldu bezala, “demokraziaren indar nagusia ez da bestearekiko amodioa, baizik eta gainontzeko tribu, frakzio eta nazioekiko gorrotoa”. ■



Fermin Erbiti Zabalza

KAZETARIA ♦



DANI BLANCO

Benetako partida, bi hilabete barrukoa

OSASUNAREN HAMAIAKAKO bakarra dakit buruz, oso aspaldikoa: bigarren eta hirugarren dibisioaren arteko joan-etorrietan zebilen garaikoa. Memoria apetatsuari orduko irudi bat eskatuz gero, Bosmediano ikusten dut. Zelai erdian baloia harturik, ezker hegaletik gora doa, ziztu bizian. Aitzina egin ahala, harmailetak orroaren oihartzuna handitzen doa, Ostibar ere area txikian sartu baita kanariarren erdiraketari buruz erantzuteko asmoz.

Aita eta anaiarekin Sadarren eginiko igande arratsalde urrun haiek puruen usainari daude loturik; arbitroaren aurkako oihuak ere gogoan dauzkat, bai eta norgehiagoka amaitu bezain laster tabernetan banatu ohi zuten *La goleada* berri paper mehea, arratsaldeko emaitza eta sailkapenekin.

Fermin Ezkurra zen Osasunako ordutegiko presidentea. Iruñeko Kutxako ardura-dun, kutxak berak jarria zuen postuan kluba erreskatatu ondotik, zorra kobratzeko berme hoberena zelakoan. Diputazioan Amadeo Marco erreketek zaharra zegoen, eta Uragua zen Nafarroako Kutxako burua, *Diario de Navarra*ko zuzendariaren anaia. Nafarroa arragoan kolore iluneko jauntxokeria nagusi, bistan denez.

Urteen joan-etorriak aldatu egin ditu elkarren arteko harreman estua duten hiru instituzioetako ardura-

dunen izenak: Sanz-Barcina Gobernua (eta Caja Navarran), Izko-Artxanko Osasun, Goñi kutxan. Izanetan aldaketa handirik ez dugu ezagutu, ez onerako behintzat. Ordutegiko jauntxokeriari aberats berriek dirua xahutzeko duten joera gehitu zaio, guztion kalterako. Momentuz, Kutxa pikutara joan da, Osasuna

bide beretik doa eta agintarien kudeaketa ekonomiko arduragabeak kili-kolo utzi du Nafarroaren bidegarritasuna.

Osasunako arduradunak erreskate eske joan zirelarik, Nafarroako Parlamentua bi zatitan banatu zen. Klubari hirurogei milioiko zorra pilatzen utzi dion UPN, sozialistak eta PP tratua berehala sinatzearen alde agertu ziren. Oposizioako taldeek, ordea, lehenbizi kontuak argitu behar zirela azpimarratu zuten.

Berriki jakin dugunez, hura argitzea zaila zen, dena kakaztuegi zegoelako. Gobernuak irabazi zuen bozketa, ordea, oso argigarria izan zen, maiatzeko partidaren gakoa islatzen baitu. UPN-PSN-PP

hirukoteak 26 parlamentario lortzen baditu, eginga dago gobernua. Bestela, abertzaleek eta Podemosek hartuko dute Diputazioaren jauregia. Esan beharrik ez dago: hori erabateko hondamendia litzateke batzuentzat; bestentzat, berriz, Nafarroa arragoa haizearen ibiltoki zabal, hesirik gabe bihurtzeko aukera. ■

Kutxa pikutara joan da, Osasuna bide beretik doa eta agintarien kudeaketa ekonomiko arduragabeak kili-kolo utzi du Nafarroaren bidegarritasuna

DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Kaleak eta gauak


GURE KALEAK izendatzeko plaken %10ak baino ez omen darama emakumezko baten izena. Ehuneko horren barnean omen daude, “inork ezagutzen dituen emakumezkoak”, abizenik gabe azaltzen diren “izen herrikoiak”, eta nola ez, santak, mojak eta Ama Birjinak.

Espazio publikoa hartzeko dugun beharraz barre egin izan digute maiz, histeriaz blai ari garela, gehiegikeria dela gure errekonozimendu antisia. Eta estatistikak gogoko ez baditut ere, gaurko datuak ez du erantzunik onartzen.

Era berean, Hernanin Andre Kalea berreskuratu dugu, ez gainera izerdi gutxi-

rekin. Ez dizkiot zorionak besterik eman nahi hainbeste urtean borrokan aritu den horri, eta bidean batu garen guztioi.

Baina kaleak ez ditugulako plaka batzuen bidez soilik gureak egingo, martxoaren 14an Hernaniko kaleak beste era batera hartzeko aukera ere izango dugu emakumeok. Izan ere, sagardotegi garai-ko gehiegikeria sexistek, babosoak eta gainontzekoek adi entzun beharko dute, gurea dena berreskuratzen gatzela. Nazkatuta egoteaz gain, haserre borborka izateaz gain, gurea denari izena jartzera baikato; eta jada, ez dugu baimenik eskatzen. ■



Gorka Moreno Márquez

♦ IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIKO ZUZENDARIA

Txikleak noiz arte eutsiko dio?

POBREZIARI eta gizartearen ezberdintasunei buruzko azken datuek hainbat titulu utzi dizkigute, gehienak kezagarriak. Lehenik eta behin, pobrezia handitu da EAEn 2012tik 2014ra bitartean, aurreko urteetan baino intentsitate handiagoz gainera.

Esanguratsua da ere azpimarratzea Gini Indizea –gizarte baten barruan ematen diren ezberdintasunak neurtzen dituen adierazlea– bi urteko tartean beste tarte luzeagotan baino gehiago hazi dela. Ez handitu bakarrik, arazoa ez da klase ertainak behera egiten ari direla, behean daudenak gero eta okerrago daudela baizik. Hortaz, ematen du, krisiaren ondorioz kaltetuenak ez direla hainbeste klase ertainak, gizarte-zaurgarritasun egoeran kokatzen direnak baizik.

Datu horietatik abiatuz interesgarria izan daiteke gogoeta egitea euskal gizarte-kohesio ereduaz eta horren mantentzeari buruz. Euskal gizartearen ongizatea bermatzeko ezinbestekoa izan da industriaren sektorea eta horri lotuta dauden soldatak. Momentu hauetan, lan erreforma ezberdinen ondorioz, eredu hau zalantzan dago eta gero eta soldata baxuagoak jasotzen dira industriaren sektorean, nagusiki enplegu berria lortzen dutenen artean, sarritan lantegi berean bi langile talde topatuz: baldintza onak dituztenak eta behin-behineko egoeran daudenak.

Horri lotuta, azken urte hauetan ikusten ari garen tendentzia pobreziaaren perfilen aldaketa nabarmena da. Horrela, duela 15-20 urte adinekoak pobrezia

tasa handienak pairatzen zituzten taldea baziren ere, krisiaren ondoren pobreziaaren perfila izugarri gaztetu da; umeen eta gazteen artean ematen dira pobrezia tasa handienak. Adinekoen egoera azken urteetan mantendu egin da eta zenbaitetan hobetu ere bai, pentsioetan jaitsierarik ez delako eman, eta gainera, batez besteko pentsioaren kopurua gero eta handiagoa delako, horretan ere industria sektoreak zerikusi duelarik.

Duela 15-20 urte adinekoak pobrezia tasa handienak pairatzen zituzten taldea baziren ere, krisia eta gero pobreziaaren perfila izugarri gaztetu da; umeen eta gazteen artean ematen dira pobrezia tasa handienak

Egoera kafkiar baten aurrean gaude beraz, soldata baxuak eta langile pobreak diren gazteak ari dira euren kotizazioen bidez adinekoen pentsio altuak finantzatzeko, askotan langile horiek inoiz jasoko ez dituzten diru-kopuruak jasotzen dituzte pentsionistek. Epe ertain eta luzera begira egoera sostengaezina izango da, egoerak hobera egin beharrean okerrera baino ez du egingo hurrengo urteetan, gizarte-ezberdintasunak areagotu baino ez dira egingo euskal gizartean. ■

IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Iñigo Legorburu



San Filippo

Doinua: Amaren bularra.

* San Antontxu sariko irabazlea. Sorta osoa argia.eusen.

Alabak hiru urte kunplitu berritan medikurako gure ohiko bisitan; oraindik zegoela Lur larru gorritan esan zigun “hau ez da gertatzen sarritan...” “San Filippo” izena botata birritan hotzikara handi bat gailendu zen tripan. Nerbio ta beldurren bitarteko kinkan ezkutuko mundu bat gelditu zen bistan.

Jada utzi diozu hitz egiteari nahizta komunikatzen zaren guztiz garbi: Zu pozik zaudenean zabilta jostari haserretzean berriz, betilun ta nagi. Eguneroko martxan arazo ugari bizi ditugun arren; zara gure sari. Egunekoa biziz gabiltza aspaldi denbora irabaziz etorkizunari.

Gizarteari jartzen bagara begira han guztiok berdinak ez gara-ta, tira! Sailkatuak zenbaki batzuen neurriara nornahi ez da iristen besteen erdira. Ospitaleak duen zorraren harira txanponen diktadura gailentzen ari da. Logika horrek badu gurean segida gaixo daudenak ere sailkatzen baitira. ■

Danele Sarriugarte

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Zapaltzailearen takoiak

ORAIN BI HILABETE ESKAS, Nekane San Miguel, Mari Luz Esteban eta Isabel Otxoak iritzi artikulua plazaratu zuten *Berria* egunkarian, honako gai honen bueltan: ETBn eguraldiari buruzko informazioa ematen duten emakumeen janzkera. Zehazki, aurkezle horien zapatak ekarri zituzten hizpidera, takoi garaiak ibiltzen ditu-eta, erruz, Ana Urrutiak.

Hurbileko takoiak deitzen zen testua eta autoreek zioten, besteak beste, takoiak ez direla erosoak eta osasun arazoak sortzen dituztela, pertsonaren mugitzeko gaitasuna ikaragarri mugatzen dutela, eta, azkenik, irudiak ez direnez, ez, inuxenteak, telebistako *prime time*an gisako oinetakoekin apaindutako emakumeek eredu oso zehatz bat bultzatzen dutela, behatua izateko objektuarena.

Gaiak soka luzea ekarri zuen, eta niri akordatu zitzaidan irudiek ez ezik hitzek ere balio dutela este-reotipoak birsortzeko eta gizartearen ordenamendu funtsean maskulinoa sasoiz sasoi berrindartzeko. Akordatu zitzaidan Inma Errea itzultzaile eta idazleari entzundako solasaldi bat; bertan, Erreak ariketa interesgarri bat ekarri zigun: tradizioz emakumei edo gizonei lotzen zaizkien objektuen izenak bilatu zituen Ereduzko Prosa Gaur datubasean. Takoi hitza sartuta, literatura testuei zegozkien 236 adibideetatik, puska handi batek emakumeen takoi zorrotzei egiten zion erreferentzia, eta adibide horietan azpimarratu egiten zen emakumeak zer ziren sexiak, takoiak soinean zituztela. Literaturan, hortaz, takoiak emakumei eta horiek kitzikatutako sexu desirari lotuta agertzen zaizkigu, eta ez, esate baterako, herrenka dabilen norbaiten ortopediainetakoiei.

Edonola den, minen akordatu zitzaidana beste kontu bat izan zen, telesail oso B mailako bateko kapitulua, *Modern Family*-

koa, alegia. Mota horretako ekoizpenek, entretenimendu xamurra sortzea eta ikus-entzuleen gehiengoarekin bat etortzea helburu, ez dizute galdera existentzial sakonegirik planteazten; bazka ematen dizute, ordea, ikerketa soziologiko ximple batzuk egiteko, hau da, sozialki onartua dagoenari tankera hartzeko, nahiko modu errealistan.

Kapitulu zehatz hark gordin ikusarazi zidan takoiaren beste funtzio bat, ezinago perbertsoa.

Honatx trama: familia modernotzat saldu nahi dituzten arren, mamian ikaragarri tradizionalak diren hiru familia protagonistek—ez diotenez erotikako kontra-proposamenik egiten senitartekotzaren oinarritzko zimenduei— txangoa antolatzen dute atrakzio-parkera. Bikote gayak ez daki zer egin alaba txikiarekin, gora eta behera baitabil jauzika, eta deskuidatzen direnero, parkeko beste muturreraino joana dela egiaztatzen dute. Hasiera batean, saiatzen dira umeari txakur-uhalekin eusten, baina jendeak gaitzespenegiz begiratzen diela-eta, bazter uzten dute estrategia hori.

Orduan, haurraren aitona, bera baino 30 urte gazteagoa den emakume batekin ezkondua, epifania betean deskubritzen du andrea hain sarritan ozpinduta egotearen arrazoi nagusietako bat dela, azken buruan, takoi izugarri deserosoekin ibiltzen dela beti. *Flashback*ean gogoratzen du nola itxaron behar izaten dion kaletik doazenean, nola eman behar izaten dion eskua eskailekarak jaisteko. Bonbilla artean ñir-ñirka, merchandising-denda batera sartu eta printzesa-zapatatxo (takoidun) batzuk erosten ditu bilobarentzat, horiek oinetan dituela ez baitu posible izango harrapatu ezineko moduan urruntzea, aske ibiltzea.

Txakur-uhala ez bezala, zapaltzailearen takoiak ez ditu inortxok ere begitan hartzen. ■



Antton Olariaga

BERNARDO ATXAGA & ANARI

Desertuko Biztanleak



BILBO

ARRIAGA ANTZOKIA

MARTXOAK 11

20:00 etan

Antolatzailea:



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Babeslea:



Bilbao
euskara

Laguntzaileak:



argia



antza



AAM KULTUR
PROMOTORA



BIZKAIA
irratia

Sarrerak:

- Lehiatila / takila
- Telf.: 946 850 850
- www.teatroarriaga.com
- www.sarrerakutxabank.es

ERDIKO KAIERA

CAROL RAMA

Artearen historia berrirakurtzen

Artista italiar ahantziari eskainitako erakusketa, *Pasioa Carol Ramaren arabera*, aukera ezin hobia da artearen historiografia nagusia kritikoki berrirakurtzeko. 70 urtetan zehar egindako 200 bat lan, XX. mendeko artearen toki komunak zalantzan jartzeko.

| ARITZ GALARRAGA |



“Ez daukat margolari maisurik, nolabaiteko bekatu-sena dut irakasle”, adierazi zuen Carol Ramak 1981ean.

HISTORIA, Ambrose Biercek, gisa honetantxe definitzen du: “Kontaera faltsua hein handi batean, gehienbat garrantzi gutxiko gertaerak kontatzen dituen, gehienbat gizatxar diren gobernariek eta gehienbat txoroak diren soldaduek eragina”. Besterik da garrantzia gutxi-ko gertakari horiek gero garrantzia handiago-ko gertakariak eragin ditzaketen: apokaliptiko jartzearen, adibidez gerrak. Joseba Sarri- nandiak, aldiz, testu honetarako egokiagoa zaigun definizio bat ematen dio Historiari:

“Behin eta berriro idatziz doan testua, gero borraratua eta berriz idatzia izateko. Historiak era guztietako argumentuak pilatzen ditu, zer frogatu nahi duen oraindik ez dakien arren”.

Sarrera modu hori zertarako, eta, erakusketa batean izan naizela esateko. Museu d’art contemporani de Barcelona-n. Izena: *La passió segons Carol Rama*. Ez Bach ez bi: Carol Rama. Lasai, segi irakurtzen, normala da haren izenik ez ezagutzea. Bost euro balio duen sarre- rarekin batera jasotako esku-orrian ohartaraz-



Lehenbiziko akuarelak dira Ramaren erakusketan atentzio handiena ematen dutenak. 1936ko *Nonna Carolina* lanean (goian ezkerrean) gorputz atalen protesiak pintatu zituen. 1940ko *Appassionata*n psikiatrikoko eszena bat. Eskuineko *Dorinan* (1944), suge bat ikus daiteke uzkitik irteten. Urtebete geroago zentsuratu zuten margolaria, “lizunkeriagatik”.

ten digute: izena ez da ezein historiari ager-tzen, ezta “emakume artisten historia” deitu duten horretan ere. Torinon jaioa, 1918an, industrialari familia batean; burgesa, beraz, estutasun handirik gabekoa. Ez behintzat eko-nomikoki: heziketa artistikorik gabea, Ramaren hasieretako obran eragina izan zuten heriotzak –aitak buruaz beste egin zuen, alabak 22 urte zituela– eta itxialdi instituzionalak –ama psi-kiatriko batean sartu behar izan zuten, aitaren heriotzaren ondotik–. Orduantxe hasi zen pinta-tzen erakusketa honetan aten-tzioa gehien ematen duten akuarelak: emakume batek kaka egiten du, giza zakil bat ornitorrinko batean sartzen da, gorputz batek eskuekin zabaltzen du bulba, suge bat ipurtzu-lo batetik irteten da. 1945ean erakutsi zituen

Zergatik ez da ezaguna Carol Rama? Deigarria da artearen historiak eskaini dion arreta eskasa, haren ibilbide luzea eta ekarpena ikusita

lehen aldiz jendaurrean: Italiako gobernuak zentsuratu egin zituen, “lizunkeriagatik”.

Ibilbide artistikoa ez zuen hor gelditu, ordea. Paul, aka Beatriz, Preciado komisarioak idatzita utzi duen bezala, “hogeigarren mende-ko artearen kontra-artxibo” gisa har daiteke eta Ramaren obra. Lehen erakusketa haren zentsura “ohartarazpen” modura hartu zuen, hori bai, motibo figuratiboak alde batera uzteko gonbidapen. 50etan, “gerra abstraktua” jarri zuen martxan, *Movimento per l'arte concreta* taldearen baitan, bere obrari “nolabaiteko ordena” eta “gehiegizko askatasuna mugatzeko”. Hamarkada haren erdialde- ra, arte konkretua lantzen zuen taldearen konbentzio geometrikoengandik urrundu, eta material berri, teknika berriei esperimenta-

tzen hasi zen. Adibidez, 60etan, Rama gerturatu zen esperimentazio linguistikoa lantzen zuten artistengana, *Novissimi* taldekoen poesia bisualera, bereziki Edoardo Sanguineti idazlearengana. Sanguineti berak *bricolages* deitutako zituen lanak egin zituen garai hartan, elementu organiko eta inorganiko desberdinen nahasketatik sortzen zirenak.

60. hamarkada amaieratik aurrera, Italiako eszena artistikoa berenganatu zuten *arte povera* mugimenduko figura maskulinoek: Alighiero Boetti, Giuseppe Penone, Giulio Paolini, Mario Merz, Pino Pascali, Michelangelo Pistoletto. Carol Rama, beste behin, eszena horretatik kanpo geratuko da. Nahiz kautxuzko pneumatikoak sarri agertzen diren garai hartako obran –aitak, hondo jo aurretik, bizikleta fabrika bat izan zuen–. Baina ez bakarrik: oin eta hanka protesiak, kristalezko begiak, betazalak, ilea, azala, azkazalak, hortz naturalak, osagai elektrikoak (fusibleak, bateriak), medikoak (xiringak). 70etan, ia eskusibiki erabiliko ditu kautxuzko pneumatikoak, taxidermista batek azala lantzen duen bezala erabili ere.

1980an, Leo Vergine komisarioak Ramaren obra “deskubritu” zuen: lehen akuarela haietako batzuk sartu zizkion, *L'altra metà dell'avanguardia 1910-1940* izeneko erakusketa kolektiboan. Ehun bat emakume artistaren lana jaso zen bertan. Deskubrimendu horrek, aldiz, berriz geldiarazi zuen Ramaren sona. Bi modutara: aitorpena ematen dio, baina soilik emakume gisara aurkeztuta. Eta gazte garaiko obrak bakarrik erakutsita, ondorengo obra guztia uzten du ilunpean. Sorkuntzak ez du etenik, ordea: 90etan, animalia gaixoen errepresentazioak margotuko ditu, orduko hartan modako zeuden behi eroak. Autoerreturatu gisa ere aurkeztu zituenak: “Neroni naiz behi eroa”.

Errekonozimendua-edo, 2003an iritsi zitzaion Ramari: Urrezko Lehoia eman zioten Veneziako biurtekoan, zazpi hamarkadatan zehar egindako lanagatik. Hartara, goitik behera betetzen dira Carol Ramaren kasuan, Guerrila Girls kolektibokoek aipatzen zituzten iragarpen horiek guztiak: “Emakume artista izatearen abantailak dira, laurogei urte



Pinturaz gain bestelako materialak ere erabili ditu Ramak. 1970eko *Presagi di Birnam* honetan bizikleten pneumatikoak erabili zituen. Margolariaren aitak bizikleta fabrika izan zuen bere buruaz beste egin aurretik eta, baliteke obra honekin suizidio horri erreferentzia egitea.

daukazunean hasiko direla nabarmentzen zure lana; egiten duzun edozein gauza ‘femenino’ gisa izango dela sailkatua; eta artearen historia berraztertuetan sartuko zaituztela”.

Paul B. Preciadoren tesura itzuliko gara, *Elearazi*-ko lagunek osoki euskarara ekarri duten horretara –eta ondo pentsatuta, nik ere ekar nezakeen hona osoki, bestelakoekin eman beharrean almena–. Erakusketa “minoritarioei” arrisku bat ikusten die: kontakizun historiografiko handiaren barruan, oin-ohar huts gisa amai dezaketela. Pixka bat horrela: “Egia da, arte modernoa Europa erdialdeko gizon zuriek egin zuten batez ere, baina ez ahaztu, hor zeuden, baita ere, Sonia Terk, Liubov Popova, Claude Cahun, Dorothea Tanning... Eta, batzuetan, itza-

lean izan arren, gauzatxo zoragarriak egin zituzten”. Bestela, erakusketa minoritarioak bi multzotan sailkatzen ditu: nolabait “unibertsalistak”, unibertsalera iristeko balio dutenak, alegia, narrazio hegemonikoak xurga ditzakeenak. Eta “identitate politika”-ren logika darabiltenak, zeinak arriskua duten diferentziak birnaturalizatzeko, anekdota huts gisa txertatzeko historia handian, narrazio hegemonikoa berretsiz.

Preciadok berak Rama bisitatu zuen erakusketa prestatzeko aitzakian. Baina 2005ean kontzientzia galtzen hasi zen artista, prozesu azkar batean. Artearen historiak erabat ahaztu du Carol Rama. Carol Ramak orain erabat galdu du oroimena. “Artearen historia da gure amnesia propioaren historia”, dio Preciadok. Eta zalantza planteatzen, ea erakusketa izan daitekeen artistaren memoria berreraikitze edo asmatzeko modu bat, ala, aitzitik, gure saiakera amnesia-proiektu orokor horren parte izango den. Sarrionandiaren definizioaren haritik, zalantza gutxiago dago: Historia, berriz idatzia izaten ari den momentu honetan –ze momentutan ez da berriz idatzia izaten ari?–, ziria sartzeko, esan nahi baita sartzeko falka, besterik ez bada muturra, probestu beharra dago. Bartzelonakoa bukatuta, Pariseko Musée d’Art Moderne izenekoan dugu aukera, apirilaren 3tik uztailaren 12ra. ■

Egunsentiaren Kantak

KONTZERTUA

**PIER PAUL BERZAITZ
ESTITXU PINATXO
MAGALI ZUBILLAGA
ERRAMUN MARTIKORENA**



BILBO
MARTXOAK 8

ARRIAGA ANTZOKIA

19:00 etan

Antolatzailea:



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Babeslea:



Bilbao
EUSKARA
BILBO

Laguntzaileak:



argia



antzoka



AAM KULTUR
PROMOTOREA
613421153



BIZKAIA
irratia

Sarrerak:

· Lehiatila / takila
· Telf.: 946 850 850
· www.teatroarriaga.com
· www.sarrerakutxabank.es

Lauaxeta eta Kirikiñorenak egin du

Batzuk badoaz eta besteak badatoz dio kaleko esanak, eta horrek zenbait ohitura atzean utzi eta garaira egokitzeko formula berriak asmatzea dakar maiz. Bilbon euskal kulturarako erreferente izan diren liburu denden argiak itzaltzen ari dira, baina sektoreak bizi dituen zailtasunei erronka hartuta dabilenik bada.

| ITZIAR UGARTE IRIZAR |

APALAK ERDI HUTSIK barruan eta “erretiroa-gatik likidazioa” iragartzen duten kartel handiak kanpoan. Hala dago Bilboko Lauaxeta liburu denda. Sektoreak bizi duen egoera estua eta osasun arazoak tarteko, ateak itxi ditu otsaila amaitzearekin bat, iazko ekainean Kirikiñok egin bezala. Sorkunde Arregi eta Txomin Saratxaga senar-emazteak daude liburu denda horien atzean. Urteetako lanarekin gustura baina agur esatearen penaz mintzo da Arregi. “Egungo egoera benetan zaila da, asko borrokatu behar da”, dio.

Liburu denda biak euskal kultura ardatz zuten liburuak zabaltzeko erreferentziatzako espazioak izan dira Bilbon. Saratxagaren eskutik, 1976an ireki zen Kirikiño, euskal gaiak lantzen aitzindaria hirian. Lau urteren bueltan ireki zen Lauaxeta eta Arregik hartu zuen horren ardura. Hezkuntzako materialean eta haur eta gazte literaturan jardun du bereziki, baita paper denda bezala ere. Halaber, Lizardi izenarekin hirugarren liburu saltokia ireki zuten Deustun, baina zortzi urtera itxi zuten.

Hastapeneko urteen oroitzapen ona gordetzen du Arregik: “Ilusio handia zegoen, alor askotan”. Bilbon euskaltzaletasuna indartsu zegoen eta 1977ko urtarrilaren 21ean, ikurrinak salgai jartzen lehen lokala izan zen Kirikiño. Zirrarez hurbildu ziren asko erostera, baina Aliantza Popularreko hainbat jarraitzaile ere oldartu zitzaizkien den-daren ateetan.

“Dena aldatu da ordutik”, uste du Arregik. Batez ere, saltzailearen eta eroslearen arteko tratua. “Lehen gehiago solasten zen, orain inork gutxi galdetzen dio saltzaileari liburu-erabaketa iritzi edo gomendiorik”.

Argitaletxeekin ere harremana gaiztotuz joan dela dio. “Orain liburu guztiak ikaste-txeetan saltzen dira, irakurgaiak zein ikas-materiala. Argitaletxeek haiengana jotzen dute eskaintza hoberekin, eta bezeroak kendu”. Horrek euren jarduna asko zaildu duela dio. Dena den, Arregiren esanetan, badaude erreleboa hartu dieten denda txikiak, “baina beste modu batean”.

Zazpikaleetako Verdes

Iritzi berekoa da Joxemari Iturralde, Pott bandako kide izandako idazlea. “Gauzak izugarri aldatu dira, eta ez beti onerako. Egundako liburu denda gehienak almazena dira, liburuak –best sellerrak gehien bat– pilatuta dauden tokiak”.

Izan ere, aurtun beteko dira hamar urte hiriburuko beste liburu denda historiko bat itxi zela: Zazpikaleetako Verdes. Beste askoren artean, Pott bandakoen liburu denda kuttuna izan zen eta frankismotik ateratzeko ari zen hiriarentzat paper garrantzitsua jokatu zuen honek ere euskarazko liburuak zabaltzeko.

Iturraldek dioenez, “ez ziren soilik liburuak saltzeko tokiak, baita lagun, ezagun eta euskaltzaileen biltokiak ere, iman bat bezala funtzionatzen zutenak euskaraz aritzeko, euskal kulturaz hitz egiteko eta euskal liburuak ezagutarazi eta zabaltzeko”.

Digitalizaziori aurre egiten

Alderdi anitzetan “gaurkotu ez izana” da Anti liburu dendako Javi Nevadoren ustez egundako liburu saltoki ugariak itxtearen arrazoietakoa bat. Kate handietatik at, Bilboko liburu denda esanguratsuenetakoa da egundako Anti, San Frantsisko auzoaren barrenean.

Belaunaldi aldaketa ala liburu saltzaileen gremioak bizi duen krisiaren erakusgarri? Erreferente izan diren dendek agurrak zer pentsatua ematen du

“Ikuspuntu kritiko eta alternatibo batetik, kultura garaikidean eta sor-kuntzan espezializatutako denda da”. Krisi ekonomikoak zuzenean eragin dien arren, hamar urte betetzear den proiektua apurka haziz doalako bai-kor mintzo da Nevado sektorearen geroaz.

Egun liburu denda txikien gakoak espezializazioa eta subjektibitatea dire-la dio: “Proiektuari pertsonalitatea eta izaera erantsi behar zaizkio”. Horregatik, liburuaren aukeraketari garrantzi handia ematen diote, “saltoki handiek oso gutxitan egiten dutena”.

Irakurtzeko ohiturei dagokienez, jende asko papera utzi eta pantailan irakurtzera igaro den arren, internetek liburu elektronikoak baino gehiago eragin duela uste du Nevadok.

Javier Camara liburu saltzaileak “alderdi neurologikoan” antzematen du sektorearen mehatxurik handiena, digitalizazioarekin pentsatzeko era bera aldatuz doalako. Camararen aitona abiatu zuen familiaren abizena daraman liburu denda. 80 urte igaro dira ordutik eta urteetako ibilbide horretan aldaketa handiena iraultza digitalak ekarri duela dio. “Teknologia berriak gailenduz doaz lehen liburuak nagusi ziren aisialdi-espazioan, eta ondorioz industria gutxituz doa ezinbestean”.

Baina bada liburu dendek bai, eta internetek inoiz izango ez duen zerbait: espazio fisikoa. Camararen esanetan, “espazioa baloratu egin behar da, giroa landu, ekintzak antolatu, liburu artean aritzeko espazio atsegina sortu...”. Bestetik, gero eta liburu saltzaile gehiagok produktua dibertsifikatzearen aldeko apustua egiten dutela dio. “Liburuekin nahikoa ez bada, papertegiko materiala, jokoak eta beste saltzea ere izan daiteke bide eraginkor bat”.



2015ean itxi ditu ateak Bilboko Lauaxeta liburu dendak. Iazko ekainean Kirikiñok ere berdina egin zuen. Euskal kulturarako bi gune garrantzitsu izan dira hamarkadatan.

Euskararentzat leku gutxi

Antik lau gairen inguruko liburuak biltzen ditu batik bat: diseinua, narratiba, artea eta pentsamendua. “Diseinuaren arloan, oso gutxi daukagu euskaraz, gutxi argitaratzen delako, baina gainontzeko arloetan badaukagu, baita hurrendako liburuetan ere”. Hala ere, euskarazko eskaintza orokorra, gaztelaniazkoarekin alderatuta, %5-10 inguru baino ez da.

Camara liburu dendaren kasuan ere euskararen lekua urria da. Eskaera handirik ez dutela aitortu du saltzaileak, bezeroak horretara ohitu dituztelako akaso. “Nire aitona eta aitak ez dakite euskaraz, eta nik ere ez dut ikasi. Oso zaila da ezagutzen ez duzun hizkuntza bateko liburuak saltzea. Urtetan arrastan daramagun akatsa da”. ■

CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com



Moyua


hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)
 ☎ 943 783 447 / 617 442 466
mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-gipuzcoa.com

Literatura

Andraizea
Irati Goikoetxea
Ipuin bilduma
Erein, 2014



Izena direnak eta izenik gabe direnak

EGILEA matematikaria dela aprobetxatuta formari kopuruetan begiratu diogu: 14 ipuinek osatzen dute lan hau, haietatik 12k emakume izen bat dute izenburu eta 2k “gizona” eta “emakumea”. Ipuin gehienek 6 orri inguruko luzera dute, baina *Sara* izeneko orri batekoa da. Ahots narratiboari dagokionez, 3 ipuinetan protagonistak 1. pertsona kontatuta daude, eta 2tan agertzen da “ni” batek “zu” bati kontatzen diola istorioa.

Protagonistak emakumeak dira liburuaren eta ipuin bakoitzaren izenburretan ikus daitekeenez, baina gehienetan ez dute haiek hitz egiten, besteen begiraden argitan ezagutzen ditugulako. Izenburuak hego haizeari eta zoro haizeari egiten dio erreferentzia, irudimenari, fantasiari, pentsamendu magikoari lekua eginez kontatzeko moldean. Ahozko literaturako hitz jolasak eta irudi-kateak dauzkagu orriotan, errepikapen, kolore eta zentzumenen erabilerarekin batera ametsetako mundu batean kokatzen gaituen estiloaz. Izan ere, Virginia Woolfen hurrengo aipua agertzen da ipuinetako batean, lan honen tonua zein den argi erakusten duena: “Bizitza amestea da. Esnatzea da hiltzen gaituena”.

Estilo alai eta jostaria izan arren gai sakon eta gatazkatsuak agertzen dira ipuinetan: zahartzaroa,

heriotza, galera, dolua, abandonua, hausturak, maitemina, beldurra, pobrezia, bazterketa soziala, (botere) harremanak, tratu txarrak, inkomunikazioa... “Bizitzaren zuloak”, “itota ibiltzen ikasi duten pertsonak” eta “sarrailarik gabeko ateak” agertuko zaizkigu tarteka. Baina bereziki “izena duenak izana du” esaterarekin egingo dugu topo etengabe. Izena –eta hari lotutako izana– duten edo izenik ez duten –baina badiren– pertsonak izango ditugu; batzuek haien erdipurdiko baldintzak onartu eta horiekin aurrera egingo dute, eta besteak aldaketarako puntuan topatuko ditugu irakurketan.

Amaitzeko, irakurle, *Adela* ipuineko pasarte bat ekarriko dugu narrazio hauetan topatuko duzunaren erakusgarri: “Uxue saiatzen da horrelakoetan begiak txiki-txiki jarri eta urrutira begiratzeko, baina ez daki oso urrutira iristen ote zaizkion. Begiak. Irudimena bai, irudimena oso urrutira iristen zaio, eta horrek salbatzen du betaurrekoak janztetik. Bestela betaurrekoak erabili beharko lituzkeela uste du”. ■

Amaia
Alvarez Uria





Bidexka
Aire ahizpak
Erroa, 2014

Kantuaren xarma

HARRIGARRIA BADA ERE, Aire ahizpek duela gutxi kaleratu dute lehen diskoa, iazko abenduan, baina pozik gaude beren ahots gozoak eta sendoak eta haien kantatzeko modu aparta eta hunkigarria disko luze batean entzuteko parada dugulako.

Aurretik, besteak beste, Euskal Herria Zuzenean festibalerako *Arrosako zolan* kantua grabatu zuten; Txakun taldearekin *Santxo Azkarra lo dago* kantua; Mikel Markezekin *Konplize ditut*; eta Niko Etxartekin ere grabatzen arituak dira, baina haien disko luzerik ez, *Bidexka* osatu duten arte.

Miren, Amaia eta Paxkalin Airek orain dela 23 urte kantatu zuten plaza batean lehen aldiz, baina txikitatik kantuz aritu dira etxean, Urepelen (Nafarroa Beherea). Egunero-egunero. Haienean musika beti egon baita giroan, autoan ere bai, aitarekin eta amarekin bidaiatzen zutenean. Sehaska kantuekin batera, bazkaltzeko tenorean irratiz entzuten zituzten bertsoak izango dira segur aski haien lehendabiziko musika oroitzapenak. Etxe hartan bertsoak arretaz entzuten baitziren, aita Mixel Aire bertsolaria baita, eta aitona Xalbador.

Amak etxeko pianoaz egiten zituen harmonizatze lan ederrak eta joaldi gozoak ere aitzakia ona izan ziren hiru alabak kantuan hasteko. Etxeko lanak elkarrekin egiten aritzen zirenean, amak askotan esaten omen zien: “Zuek edo kalapitan ari zirezte edo, bertzenaz, kantuz emaiten duzue egun guzia”. Ordurako, Mirenek, Amaiak eta Paxkalin kanturako zaletasuna barruan txertatuta baitzeukaten. Lagunartean kantatzen hasi ziren eta gero plazara atera ziren beren herrian.

Aitak eta amak etxean zituzten diskoen artean baziren batzuk, maiz entzuten eta kantatzen zituztenak, eta horiek dira diskoan eskaintzen dizkigutenak. Klasiko bihurtu diren kantak, euskal kantagintza berriaren sortzaileen ahotik ezagutu genituenak: Mixel Labeguerie, Eñaut Etxamendi, Pantxo Etxeberri, Ramuntxo Carrere, Mikel Laboa, Lourdes Iriondo, Xabier Lete...

Kantu horien doinuak eta hitzak ez dituzte aldatu, baina amarengandik ikasiriko harmonizatze ederrez eta beren ahots paregabeek jantzi dituzte. Kantu horiekin batera, duela urte batzuk sortu zuten *Arrosako zolan* ere bildu dute diskora.

Bidexka lanaren bidez, Miren, Amaia eta Paxkalin Airek omenaldi gisako bat egin nahi diete sortzaile horiei eta beren gurasoei, kulturaren transmisioan bidea ez eteteagatik. Diskoa, funtsean, bidexka xume bat da, tradizioaren bide nagusiari estu lotua dagoena.

Xabier Leteren *Lore bat zauri bat* Leteri egin zioten omenaldi batean parte hartzeko ikasi zuten; Mixel Labeguerieren *Mendiaren deia* ere Labeguerieri egin zioten omenaldirako; *Euskal Herriko poeta* Eñaut Etxamendiren omenez kantatu zuten, eta *Semeari* haien aitona Fernando Aire Xalbador bertsolariaren omenez. Diskoan, Xalbadorren beraren *Neska bat haur beharretan* bertsoa ere kantatzen dute.

Timoteo Ozaeta arduratu da grabazioaz, nahaske- tez eta masterizazioaz, eta lan ederra egin du, Aire ahizpen ahots bikainei eta haien arteko harmonizazioei distira emanez.

Diskoko hamahiru kantuetatik erdiak ahots hutsez egiten dituzte. Gainerakoak, Sebastien Desgrans akordeoi jotzailearekin. Haren notak Aire ahizpen ahotsen laguntzaile xumeak dira, eta Miren, Amaia eta Paxkalin Airek beti bezala kantatzen dute, gustukoa duten kantatzeko modu horren bidetik, naturala, xaloa eta artifiziorik gabekoa. Haien kantua zirra ederki transmititzen dute. Kantuaren premiaren- gatik kantatzen baitute, besterik gabe. Oso politik iruditu zaizkit *Hala ere* (Xabier Lete, Lourdes Iriondo), *Semeari* (Xalbador, Pantxo Etxeberri), *Maitasun honek zugar dirudi* (Sara Soto), *Gogo eta gorputzaren zilbor-besteak* (JosAnton Artze, Mikel Laboa), *Neska bat haur beharretan* (Xalbador, Ramuntxo Carrere), *Hitzak dira* (Xabier Lete, Lourdes Iriondo) eta *Martxa baten lehen notak* (JosAnton Artze, Mikel Laboa).

Kantu bakoitzean “halako egitasun bat” aurkitzen dute, Aire ahizpek beraiek diskoaren aurkezpe- nean esan zutenek. “Zerbait kontatzen duena. Sako- na. Horrek gaitu hunkitzen. Biziari buruzko galdera batzuen inguruko poemak dira. Ez dute baitezpada iraungitze egunik. Bizitzen ahal dira horiek berdin 20 urte lehenago edo 20 urte berantago”.

Gu ere hunkitzen gara Aire ahizpak kantu horiek abesten entzuten ditugun bakoitzean, eta *Bidexka* diskoari esker sarriago hunkituko gara. ■

Joxi Ubeda

Sudokuak

Erraza

A portrait of a woman with dark, curly hair, wearing a pink top and a dark jacket. She is looking directly at the camera with a neutral expression. The background is a light, textured wall.

DANI BLANCO

		3		9	6				
				7	1				6
	9	4	2	3					5
2		8	9			6			7
		7				4			
4		1			2	5			9
8				4	9	2	6		
1			3	8					
			6	2		7			

P	E	M	P	P	T	N	M	V	L	Z	U	R	E	O	U
C	R	I	G	H	I	S	I	I	T	H	I	E	J	O	
H	P	A	N	U	H	B	T	S	S	R	P	A	R	T	E
B	A	L	O	T	L	R	C	D	T	F	J	F	F	R	R
C	G	A	U	R	H	A	U	K	E	R	A	H	D	M	V
C	S	B	H	A	R	A	N	T	Z	A	N	Z	G	G	A
Z	I	T	A	L	A	M	U	V	Z	Z	P	B	O	Z	F
S	P	H	A	R	R	E	M	A	N	C	D	G	E	L	G
A	L	A	M	A	T	U	T	Z	O	F	Z	U	R	P	O
E	T	S	E	B	T	I	A	A	S	O	T	C	E	A	F
I	S	R	A	R	D	B	L	O	S	Z	E	T	B	C	F
S	L	J	U	M	A	I	T	E	I	T	B	A	R	H	F
L	L	H	U	L	R	L	I	T	B	V	U	F	O	B	I
V	I	O	D	O	L	U	S	T	U	T	Z	E	N	S	U
B	N	E	Z	T	A	R	I	G	E	B	R	I	J	C	N

Zaila

	7		9					5
		4	3			8	1	
		6					9	
2			4					
	9	5		6		7	3	
					7			9
	8					2		
	4	9			1	6		
7					5		4	

Soluzioak

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									

A group of six young adults, the main cast of the TV show 'The Vampire Diaries', are posed in front of a weathered, grey wooden building with boarded-up windows. From left to right: a woman in a blue and red outfit, a man in a black t-shirt, a man in a red t-shirt, a man in a black t-shirt, a woman in an orange t-shirt, and a man in a black t-shirt. They are all looking towards the camera.

ANDER GILLENIA

8	1	5	2	6	9	3	4
7	1	8	3	6	2	9	4
5	9	7	8	3	6	2	4
6	3	2	4	1	7	8	9
9	8	6	5	1	3	4	2
4	2	1	9	8	5	6	3
3	7	4	5	2	9	1	8
2	8	3	6	4	7	5	1

Ezker-eskuin: 1. Suts, Zait.
2. Alegria. 3. Idi, Otadi.
4. Hausa, Or. 5. Er, Xalant.
6. Senar, Fax. 7. Olibadi.
8. Urko, Alor.

Gotik behera: 1. Saïhestu.
2. Aldare. 3. Teiu, Nok. 4. Sr,
5. Xalo. 5. Gosari. 6. Zital, Ba.
7. Aaz, Afari. 8. Donado.
9. Txitxin.

[illegible]

1. Aldaratu. 2. Kristau erlijioan, meza ematen den-mahai. 3. Zikin, lohi. **Argazkiko musika tal-dea.** 4. Estrontzioaren sin-boloa. Belarrondoko. 5. Goizeko otordu. 6. Doilor, zikoitz. Herri hizkeran, bada. 7. A hirutan. Afaldu aditzaren infinitiboa. 8. Mutilzahar. 9. Kilker.

7	3	2	6	9	8	5	9	1	4
8	7	6	1	3	2	3	1	6	7
3	6	1	8	4	7	6	2	5	3
9	4	6	3	8	5	7	1	2	9
8	6	5	1	6	2	7	3	4	
2	1	7	4	9	3	5	8	6	
4	9	7							
9	5	4	3	7	6	8	1	2	
6	3	2	6	5	4	9	7		
1	8	7	9	6	2	4	3	5	

ala

ZINEMA

“Goonies never say die”: salba dezagun abenturazko generoa!

ABENTURA ZER DEN hitz gutxitan definitu beharko banu, Omar Sharifek *Lawrence of Arabia* (1962) filmean esaten duena berreskuratuko nuke: “Ez dago ezer idatzia, norberak idazten duen arte”. Alegia, abentura bat, gidoitik kanpo bizitzea dela, gure egunerokotasun arrunt hori utzi eta espero ez genuen patu hori bizitzea azken finean. Agian horregatik liluratzen gaituzte hainbeste abenturazko filmek, iraganeko nostalgia hori sentiarazten digutela. Zoritxarrez, azken urteetan genero zoragarri hau desagertzen ari dela uste dut, gaur egun apenas egiten diren mota honetako filmak –kalitatezkoak esan nahi dut– eta galtzear daude gure haurtzaroan kapela eta zartailuarekin jolasteko desira piztu ziguten pelikulak, hoguei urte geroago John Williams konposatzailearen soinu banda gure garunean itsatsirik mantentzea lortu zuten istorio haiek.

Zergatik diodan generoa erdi hilik dagoela? 80ko hamarkadan jaio eta hazi nintzen eta izugarri gozaten nuen gaur egun kultuzko bilakatu diren film zoragarri haiekin. Betidanik pentsatu izan dut, izugarrizko lotura eta konexioa sortzen dela txikitari bizi izan genituen istorioekin. Sekulako pasioa sentitzen dut gaur egun, garai hartako film, musika edo jostailuak burura datozkidan bakoitzean. Ikusi besterik ez dago orain gutxi Donostian sortu duten ekimena. Bertako zinezale koadrila batek *Bang! Bang! Zinema* egitasmoa jarri du abian. Sinetsita daude zinemara joatea film bat ikustea baino askoz gehiago dela, eta horregatik, jarduera ludiko eta parte hartzaileak egingo dituzte emanaldi bikoitzean. Orain arte *Alien-Die Hard* eta *Life of Brian-Indiana Jones* proiektatu dituzte, horrela, saio bikoitzean. Martxoan datorrena aldiz, sekulakoa: *The Big Lebowski* eta *Goodfellas*.



Non geratu dira *The Goonies* bezalako abentura-filmak?


Baina non egon liteke generoaren arazoa? Azken urteetan, zinema-industriak bi film motarekin bonbardatzen gaituela etengabe: super-heroiak eta *remakeak* –existitzen zen film bat berregitea, alegia–. Lehen aipaturiko 80ko hamarkadako filmak berrikusiz, konturatu nintzen non egon zitekeen gakoetako bat. Lan horiek guztiak talentu izugarria zuten izenekin erlazionaturik zeuden, Steven Spielberg eta Robert Zemeckis esaterako. Garai hartan hasi berriak ziren eta nahiko ezezagunak. Hori dela-eta, gaur egun kontatzen ausartuko ez liratekeen istorio eta pertsonaiak jorratzen zituzten eta gazteei zuzenduriko filmak harribitxi bihurtu ziren. Arrakasta eta ospea irabazten joan ziren heinean, film dramatiko edo “serio-agoetan” murgiltzen hasi ziren –ez du zertan txarra izan, noski–, *Schindler's list* edo *Forrest Gump* bezalako lan bikainak adibidez. Baina horrek, modu batean esatearren, abenturazko generoa umezurtz utzi zuen. Gaur egun pantailaratzen diren genero horretako film apurrak zuzendari kaskarrek eginak izaten dira. Helburua, 3D formatu iruzurti hori eranstea, ahalik eta diru kopuru handiena lortzeko, kalita-

teari erreparatu gabe, produktu huts eta narratsak estreinatzeko.

25-40 bitarteko adina duzuenok, zer sentitzen duzue Indiana Jones, Zapparro, Elliot, Sloth edo Marty McFly bezalako pertsonaien izenak entzutean? Edo *The Goonies*, *E.T.*, *Willow* edo *Back to the future* bezalako filmak gogoratzean? Deskribaezina ezta? Ziur nago gaur egungo umeak gose direla horrelako abenturak irensteko, behin helduak direnean oroitzapen berdina eduki eta beraiei Delorean partikularrean iraganera bidaia egiteko. Abenturazko genero “purua” diodanean, nire ustez, historian egin den adibide onenarekin konparatu beharko genuke, lehen aipaturiko *Indiana Jones*ekin alegia. Saiatu mota horretako filmen zerrenda egiten eta ohartuko zarete zenbat kostatuko zaizuen 1990etik aurrera zerbait fundamentuzkoa gehitzen –egungo salbuespena Pixar izan liteke, *UP* edo *Toy Story 3* bezalako filmekin–. Nire haurtzaroko film gogokoena-ren leloak dioen bezala: “*Goonies never say die*” (Gooniek ez dute inoiz “hil” esaten): salba dezagun abenturazko generoa! ■

Gaizka Izagirre

Aurtengo gripeak gogor jo du Frantziako Estatuan



Aurten beste batzuetan baino babes txikiagoa eman du gripearen aurkako txertoak.

Hortaz, aurten txertoak beste batzuetan baino babes txikiagoa eman du gripearen aurrean. Erne egotea dagokigu, balizko sintomak agertzekotan. ■

AZKEN ASTEOTAN Frantziako berriemaileek erakutsi dizkiguten gripearen eboluzioaren datuek harridura sortu dute hiritarren. Ez dakit hango datuak Euskal Herri osora zabalgarriak diren ala ez, baina ez zait iruditzen Hego Euskal Herriko datuak –Ipar Euskal Herrikoak, zer esanik ez– Frantziako Estaturaren oso desberdinak izango direnik.

Urtarril amaieratik otsail amaiera arte irauten ari den gripe epidemiaren aurkako txertoak uste baino emaitza ahulagoak eman ditu 65 eta 85 urte arteko hiritarren, eta ohi baino kasu larriago artatu dituzte ospitaleetan.

EAEn enpresak haserre I+Grako laguntza publikoak direla eta

2020RAKO, Eusko Jaurlaritzak Europar Batasuneko auzidiekin bateratu du EAeko I+G estrategia. Aurreko asteetan gure ikerketa zentroen urdurasunaren berri eman dugu; orain enpresei dagokie. Bi hitzetan: EAEn ikerketa egiten duten enpresei diru gutxiago eta baldintzak gogortzea ekarri du 2015eko Gaitek deialdiak.

2014an 1.400 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 800ek jasoko dute nolabaiteko finantzazioa, 2015eko otsailean emandako ebazpenaren arabera. Urtea igarota eta, beraz, proiektuak amaitu ondoren ezagutu dugu finantzazioaren zenbatekoa. Ona da diru publikoaren kontrol neurriak ezartzea, baina administrazioak ere lidera izan beharko luke berrikuntzan eta kudeaketan; aurten gerrikoa estutzea eskatu zaie enpresei, eta antza denez administrazioak ez du inolako berrikuntzarik aurreikusitako, publikoki bederen. Ondorioz, enpresetan urdurtasuna eta haserre zabalduta dira. Eta hori ez da egokia ikerketarako. ■



Martxoaren 20ko eklipsearen eragina energi produkzioan

Gero eta garrantzi handiagoa du, mundu osoan, eguzki energi ekoizpenak. Martxoaren 20an eguzki eklipsea izango da eta, NASAk adierazi duenez, gertaera horrek jaitsiera esanguratsua eragingo du energia fotovoltaikoaren produkzioan.

ttiki.com/337208
(Frantsesez)

Material natural erresistenteena aurkitu dutela aldarrikatu dute

Portsmoutheko Unibertsitateko ikerlarien arabera, lapen hortzena baino material erresistenteagorik ez dago Lurrean. Horrenbestez, material horrek podiumeko maila gorenetik kendu du armiarmen zeta, besteak beste balen aurkako atorrak egiteko erabiltzen dena. Ikerlariak behatu dutenez, lapen hortzen barruan goethita izeneko mineral gogorra dago.

ttiki.com/337209
(Gaztelaniaz)

Inkestak egiteko erak eskuineko alderdien emaitzak puztu ditzake

Nafarroako Unibertsitate Publikoan egindako ikerketa baten arabera, hauteskunde aurreko inkestak telefono finko bidez egiteak emaitza desitxuratzen du, mugikorra baizik ez dutenen iritzia kanpoan uzten baitu. Ikerlarien esanetan, ondorioetako bat da eskuineko alderdien aldeko boto aurreikuspena puztu egiten dela.

ttiki.com/337210
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Orain porru haziak

AURTEN sekula baino har gehiago ikusi dut porruetan (*Allium porrum*) barrena. *Acrolepiopsis assectella* izena duen har tiki txatxu batek porruaren bihotzean zulobidea egiteko ohitura du. Porrua begi bakarreko landarea da; hosto guztiak kimu bakar baten bueltan hazten dira, baita gero lorea emateko tontortuko den gara ere. Kimu horretan sortzen dena, guriaren gurienean, bapo janez hazten da harra. Uda-berrian eta udan tximeleta etortzen da, eta porruan edo inguruko lurtean arrautzak jartzen ditu. Horietatik har tikiak jaioko dira, eta zuzenean bereari ekingo diote: jan eta jan. Harrak erosi dugun porru landarean bertan etor daitezke. Baita aldatu ondoren ere, tximeletaren arrautzetatik. Ez da intsektu askorik, porruari erasotzen dionik, haren berezko defentsa naturalak –usain eta dasta biziak– gaudituta. Gaixtoena, har petral horixe.

Orain neguan hotzak pasa dituen jartzen da porrua gozotzen. Porrusaldan suspertzaile bat egiteko asmotan baratzerara jo eta ustekabea, har lotsagabe arraioa! Nazka apur bat ematen du. Porru ederra sartu digu harrak. Zenbait porruak gehiago hartu ere ez.

Neguan harrik gabeko porrua nahi izanez gero, bi lan hartu, zein baino zein errazagoak. Lehena, landarea muintegitik atera eta alda-



JAKOBA ERREKONDO

Porru artean azenarioak (goiko argazkian) edo apioak jartzeak lagundu egingo dizu *Acrolepiopsis assectella* harra ager ez dadin.

tu aurretik 36-48 orduz eguzkitan edukitzea. Ondo lehortu dadila. Negarrez ari den ilobak bezala, pena pixka bat ematen du; baina landareak ez du sufrutuko. Har txikia barruan apopilo badarama, hark bai; hura ur faltak akabatuko du. Gero, landarea aldatutakoan, erruz ureztatu, sakon eta sarri, ondo itsatsi arte. Bigarrena, porru tartean azenarioak jarri, edo aurrez azenarioak ereindako errenka artean porru arrolak edo errel-duak. Azenarioa bezala apioa;



J. E.

horien usaina ez zaio gustatzen tximeletari, eta ez da hurbilduko. Aldameneko baratzerara joango da.

Gero, ez ahaztu, porru saila atera bezain pronto lurra harrotu. Hurrengo urterako han jarri dituzten arrautzak babesik gabe utziko dituzu.

Lantxo horiek hartuz gero, ezetz porru harrik izan hurrengo neguan! ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Bi metro inguruko hezi natural bat egin nahi nuke. Tarteka lizar eta elorri batzuk badaude baina gutxi. Zein landare izan daitezke egokiak, batez ere, hai-zeari eutsi eta ingurua babesteko? Badakit elorria altuera horretan ondo errenditu daitekeela, lizarrarekin ordea ez

dakit inausi eta altuera horretan mantentzeko moduko landarea den, eta azpi aldean nahiko begetazio sortuko duen gure helburua lortzeko.

Xabier Herrarte (Aramaio)

Kaixo Xabier. Garrantzitsua al du hostoari neguan ere eustea? Bestela, lizarra ez da txarra, nahasi pagoa, ametza, astigarra... eta hesi koloretsu eta ikusgarria egingo da. Hostoari eustea nahitaezkoa bada: hagina, gorostia, erramua, ezpela, leilandia... Dena dela urtean bitan

behintzat kimatu. Eta ahal izanez gero gehiagotan. Zenbat eta sarriago kimatu, orduan eta hesi trinkoagoa. Azpiko aldea, eta batez ere hesiaren beheko barrena ez soiltzeko azpitik goitik baino zabalago utzi beti, argia denera erraz iritsi dadin. ■

Emakume langileen eguna duela 4.000 urte

KOPENHAGE (DANIMARKA), 1910. Emakume Sozialisten Nazioarteko II. Topaketan, Alemaniako Alderdi Sozialistako ordezkari Clara Zetkin eta Kathy Dunckerrek “Emakumeen nazioarteko Eguna” edo “Emakume Langileen Eguna” ospatzeko proposamena aurkeztu zuten. 1911ko martxoan, Emakume Langileen Eguna ospatu zen lehenengoz Alemanian, Austrian, Danimarkan eta Suitzan. Ofizialki behintzat, 4.000 urte lehenago, Mesopotamian, emakume langileek, beren eguna ez ezik, aste osoa jai izan baitzuten bitan gutxienez.

Antzinako Sumerren berriki arte berreskuratuko ez zituzten eskubideak zeuzkaten emakumeek. Esaterako, ikasteko eta beren lanaren bidez bizibidea lortzeko aukera zuten. Orotariko lanbideetan aritu zitezkeen eta irabazten zutenaren jabe ziren. Merkataritza kontratuak jasotzen dituzten taulatxo askotan emakumeen sinadurak ageri dira.

Enpresaburu nagusien artean lehen dinastietako erregina eta printzesak nabarmendu ziren. Bulegoak zituzten, eta bertan lan egiten zuten idazlariak emazteen zerbitzura ageri dira dokumentuetan, eta ez senarrenean. Bulego horietatik kudeatzen zituzten negozioak eta senarrek normalean ez zuten parte hartzen, mozkinak partekatzeke ez bazen. Zenbait erregek emaztearen jarduera ekonomikoei esker finantzatu ahal izan zituzten kanpainak eta proiektuak. Akkadeko Sargon –lehen errege akadiarra– Tashlultum erregearen gari negozioari esker aberastu zen eta, lau



IRAKEKO MUSEO NAZIONALE

Sumerko emakume burua, Uruk hiriko arrastoen artean aurkitutako marmolezko pieza, K.a. 3.000 urte inguruan datatua.

erregealdi geroago, Sharkalisharri erregea Tutasharlibish emazteak eraikuntzarako harrien salerosketan irabazitakoaz baliatu zen.

Gortetik kanpo ere hainbat adibide geratu ziren agerietan jasoak. Ureko tenpluko apaiz baten emazte Ashagek garia saltzen zuen; hiri bereko gobernadorearen emazte Ninkhulak, aldiz, larrua, urrea eta lurrinak. Azken horrek Nimkalla erreginarekin nolabaiteko “multinazionala” kudeatzen zuen, haien enpresak hainbat egoitza baitzituen Lagasheko hegoaldeko mugatik hasi eta Mari iparralderaino –egungo Iraketik Turkiaraino–.

Emakume xeheen artean ohikoak ziren gerora mende luzez “maskulinitzat” jo ziren lanbideak, hala nola, zurgintza edo eskulturak zizelkatzea. Tabernari, botikari, lurringile eta masajista gehienak emakumezkoak ziren, lanbide horiek gizonezkoentzat galarazita egon ez arren. Eta Ureko III. dinastiako hiru emaku-

mezko sendagileren izenak iritsi zaizkigu: Kubatum, Zamená eta Ummeda. Tauletan aurkitutako datuen arabera, Ur hirian, II. dinastian, 13.000 emakume langile zeuden eta hurrengo dinastian, aldiz, 7.000 emakume langile zeuden Lagashen.

Gemen-Linlila erregina eta enpresaburua hil zenean haren senar Shulgik (K.a. 2029-1982) zazpi eguneko atsedena agindu zuen erresumako emakume langileentzat eta, dakigunez, Eanisha erregina hiltzean ere aste osoa jai hartu zuten emakumeek. ■

JABETZE ESKOLA-TOLOSA. 2015KO MARTXOA-EKAINEN EGITARAUA

<http://tolosa.eus/index.php/eu/parekidetasuna.html>

TOLOSAKO UDALA





*Harpidetza bakoitzarekin,
are independenteago*

***Gure independentzia harpidedunak zareten
pertsona eta talde askoren sarean oinarritzen da***

Eskerrik asko ARGIAzale! Zure ekarpenari esker hau guztia egin dugu:

Argia Eguna Usurbilen: Gure balioak elkarrekin praktikan bizitzeko eguna

Durangoko Azokaren harira, #darpidegu harpidetza kanpaina arrakastatsua

Kike Amonarrizen "Azken Txorakikeriak" liburuaren argitalpena

"Gure esku dago": giza-katearen jarraipena egiteko medioen arteko elkarlanaren sustatzaile

ARGIA English kanala martxan, nazioartean Euskal Herriaren berri emateko

Prekarietatearen aurpegiak eta Auzolan esperientziak sailak argitaratu ditugu astekarian urte osoan zehar

Hainbat ekimenen zuzeneko jarraipena egin dugu: Ondarroako Topaketa Feministak, Herri Harresiak, Zestoako TS Fundicionesen langileek egindako itxialdia eta Iruñeako abortu eskubidearen aldeko manifestazioa

Bidea urratu duten bertsoak liburuxka plazaratu genuen

2014ko urtarrileko Presoen Euskal Herriratzearen aldeko manifestazioaren posterra

Euskarazko kalitatezko kazetaritza seinalatzen duten ARGIA Sarien 25. Edizioa

***Egizu. Egiozu.
Jarri ekonomikoki zure tanta
etorkizuna margotzen jarrai dezagun***

ARGIA astero 12 euro baino ez*

ARGIA hilean behin 4 euro baino gutxiago**

Eskaerak: ☎ 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

«Öcalanek emakumeen askapenaz esandakoa gure alde erabili dugu»

Ernaik, Askapenak eta Bilgune Feministak gonbidatuta, Kurdistango bi militantek hitzaldi-bira egin zuten Euskal Herrian, otsail amaieran. Melike Yaşar da horietako bat. Kurdistango askapen mugimendua izan dute hizpide, bertan emakumeen mugimenduak eta gazteenak daukan garrantzia azpimarratuta. Ikuspegi sozialista tradizionalenetik bestelako eredu bat proposatzera igaro dira kurduak, eta, erasoak gorabehera, horretan dihardute buru-belarri.

| DANELE SARRIUGARTE |

Kurdistango askapen mugimendua-ren oinarrietako bat da emakumeen mugimendua, bere egitura propioekin antolatuta dagoena.

Kurdistano, ezagun denez, lau estaturen pean banatua dago 1923az geroztik: Iran, Irak, Siria eta Turkia. Bereizketa horren kontra kurduak erresistentzia-taldeak antolatu zituzten berehala, nahiz eta ez zuten luzaroegiz iraun. Dena dela, altxamendu asko izan ziren, adibidez, Dersim eskualdean izan zen bat, 1938an. Emakume askok hartu zuten parte. Kurdistango askapen mugimenduan ikurrak diren emakume mordoa dago.

Militante garaikideago baten izena ekarriko dut hona, orain bi urte erail baitzuten Parisen, beste bi kiderekin batera: Sakine Cansiz. PKK-ko sortzaileetako bat izan zen, eta bizirik zegoela ere oso sonatua zen Kurdistanen, eredu bat zen. Besteak beste, kurduak Cansiz oroitzen dute Diyarbakir-eko espetxeko mugimenduan izandako rolagatik, 1980an, Turkiako estatu-kolpearen ondoren. Kolpe horrek gogorren eraso egin zion orduan sortu berria zen PKKri, besteak beste. Hainbat kide atxilotu zuten, tartean Cansiz, eta Diyarbakir-eko presondegira eraman.

Bertako protestetan rol garrantzitsua jokatu zuen.

Esan liteke, PKKren eskutik hasi zela emakumeen mugimendua ere marxan jartzen?

Emakumeek hasieratik hartu zuten parte: unibertsitatean, PKKn... Dena dela, iraultzaren ikuspegi marxista-leninista zuten abiapuntu. Mugimenduarentzat garrantzitsua izan zen emakumeek parte hartzea, baina, nazioaren kausari zerbitzu egiteko. Noski, emakumeen berdintasunaren gaia mahai gainean zegoen; gainera, Kurdistango gizartean egitura patriarkalak erro-raino sartuta zeuden. Edonola den, marxismoan bezala, iraultzaren osterako kontu gisa hartzen zen emakumeen askapena: iraultzaren

ostean, estatu independente bat lortu ostean, denok izango gara libre, baita emakumeak ere. Hori akats handia da, horregatik joan zen pikutara errealsozialismoa, emakumeen gaia nazioaren atzetik ipini zelako.

Noiz hasi zen hori aldatzen?

Borroka armatua hasi zenean, 1984an, emakume askok jo zuten mendietara, borrokara. Emakumeen mugimendua esnatzen hasia zen, eta bultzada handia izan zen honetaz jabetzea: mendira jo zuten emakumeetako askok erabaki hori hartu zuten, ez hainbeste nazio askapenagatik, ez bada egitura feudal eta patriarkaletik askatzeko aukera gisa ikusten zutelako PKKren mugimendua.

Zer egoerarekin egiten zuten topo mendira joandako emakumeek?

Paradoxa handi batekin; izan ere, mendian, emakume eta gizon militanteak zeuden, bi-biak. Baina, gizon militanteak feudalak ziren, eta uste zuten emakumeek ezin zutela borrokatu. Parte hartu nahi bazuten, asko jota, atzeko lerroetan gera zitezkeen. Öcalanek bazuen horren berri eta horregatik aztertu zuen familiaren eta emakumearen gaia.

“Emakume askok mendira jo zuten, ez hainbeste nazio askapenagatik, ez bada egitura patriarkaletik askatzeko aukera gisa ikusten zutelako PKKren mugimendua”



DANI BLANCO

Hasi zen jabetzen, askatutako emakumeak izan ezean, ez zela askatutako Kurdistanik izango.

Öcalanek izan du, beraz, eraginik.

Bai, are, hasierako garai hartan Öcalan Damaskon bizi zen eta formazio politikorako eskola bat zekukan. Militanteak eta komandanteak deitzen zituen horra, eta emakumeen askapenari buruzko formazioa ematen zien, irakasten zien sozialismoak emakumeen askapena izan behar zuela erdigunean. Eskolatik irten ondoren, formatutako pertsona horiek gizarteari helarazi behar zioten ikasitakoa. Herritarrek emakumeen askapenaren ikuspegia onartu zuten, Öcalanek zioelako eta buruzagi maitatua delako. Bihotzean eta buruan ikuspegi hori sinesten ote zuten ez dakigu, baina Öcalanek esandakoa bete egin behar zen. Hori abantaila

handia izan zen guretzat, geure alde erabili dugu.

Bestalde, 1995etik aurrera, emakumeen askapenaren aldeko taktika bat jarri zuen martxan, erabat ezohikoa: lehenik, emakumeen mugimendu independentea hasi zen. Emakumeek beren kabuz antolatu zuten beren kuartela eta ekintza propioak egiteari ekin zio-

**“Oinarrian
Konfederalismo
Demokratikoa ez
balego, emakumeen
askapena erdigunean
daukana, emakumeak
ez lirateke Kobaneko
frontean borrokan
arituko”**

ten—horri esker gizonen eta herritarren errespetua irabazten hasi ziren—, gero, emakume komandanteak ipini zituen gizonezkoen milizien buru, eta, azkenik, emakumeen alderdia sortu zen.

Zer motatako gizarte-lanak egiten dituzte emakumeen mugimenduko egiturek?

Kurdistango emakume militanteen metodo garrantzitsuenetakoa bat da etxez etxe joatea, mugimenduaren aldeko dirutxoa biltzera. Militanteek ez daukate etxe propiorik eta ez dira ezkontzen, 24 ordu eskaintzen dizkiote mugimenduari eta gizarteari. Benetan oinarritik hasitako mugimendu bat da. Egunean zehar, gizonak etxetik kanpo daudela, emakumeengana joan eta beraiekin hitz egiten dute. Sentsibilizazio-lanak egiten dituzte, esaten diete beraiek ere badirela mugimendua-



Kurduen YPJ (Herri Babeserako Unitateak) emakumezkoen erakunde armatuko kideen egunerokotasuna jaso zuen Erin Trieb AEBetako argazkilariak, 2014ko abuztuan Rojavan NBC News-entzat egindako erreportajearen.

ren parte, are, beraiek gabe mugimendua ez zela posible izango.

Horrela, etxetan dauden emakumeek beren arazoak kontatzen dizkiete batzordeetako emakumei. Emakumeak joan daitezke batzordeetara eta esan: nire senarrak jo egiten nau, edo nire senarrak alaba ezkonarazi nahi du, 20 urte eskasekin.

Noski, emakumeentzako babes-etxeak daude, besteak beste, indarkeria jasan dutenentzat. Etxe horiek ez dira Europako edo Turkiakoak bezalakoak, ez dira babes-etxe soilak. Aitzitik, komuna gisa funtzionatzen dute: formazioa jasotzen dute, tailerretan parte hartzen dute, irakurtzen eta idazten ikasteko.

Gaur egun, Kurdistango askapen mugimenduaren paradigman, alegia, Konfederalismo Demokratikoan (KD), ezinbesteko zimendua da emakumeen askapena.

Öcalan espetxera sartzearekin batera fase berri bat hasi zen, bake-prozesu bat. Bertan, kritika eta autokritika prozesu bati ekin zitzaion. Öcalan konturatzen zen gauza asko lortuak zirela Kurdistango independente baten alde, baina jabetzen zen zerbait falta zela. 1999tik 2003ra, kontzeptu batzuei buruzko eztabaida egin zen: errealdismoa,

patriarkatua, boterea eta sexismoa. Estreinetako aldiz hasi ziren mugimenduaren barruan eztabaidatzen zeintzuk ziren errealdismoaren akatsak, zeintzuk ziren Marxen akatsak. Izan ere, nazio independentziaren ikuspegia ez zen aski gizar-tearen arazoari erantzuteko.

“Kobanen egitura berri bat eraikitzen ari da, mundu berri bat zabalduko da”

Konfederalismo Demokratikoaren (KD) paradigma demokratikoa da, ekologikoa, sexismoaren kontrakoa, eta emakumeen askapena du erdigunean. Estatuaren adar militarra, esate baterako, eraldatzea proposatzen du, eta armadaren orde, herriaren autodefentsarako unitateak ezartzea, autodefentsa zilegiaren ildoak jorratuta: defenda zaitzke, baina ez daukazu erasotzeko armadarik, egitura inperialistik.

KD sabai-egitura bat da, hainbat adar ditu: gazteen mugimendua, alderdi politikoa (PKK)... Bertan kuota berri bat ezarri zen: egitura guztietan egon behar du gizon adina emakume. Gainera, emakume

horiek ez dituzte gizonen hautatzen, emakumeen mugimenduak bidaltzen ditu eta kito, onartu behar dituzte. Bestelako irizpideak ere ezarri ziren: emakume baten kontra indarkeria erabilitako oro zuzenean kanpora doa, baita bi emakumekin ezkontzen dena ere bai.

Paradigma berri hori fruituak ematen ari da Rojavan (Mendebaldeko Kurdistan, Siriako Estatuaren parte den kurduen zonalde autonomoa).

Bai. Hedabideek batez ere alderdi militarra erakutsi dute: emakumeak ausarki borrokatzen direla eta abar; pozgarria dena, bestalde. Ez dute berririk eman sistema osoaren eraldaketari buruz, baina oinarrian





KDren sistema ez balego, emakumeen askapena erdigunean daukana, emakumeak ez lirarteke frontearen borrokan arituko.

Zertan datza Rojavako sistema berria?

2011n gatazka hasi zenean, ez genuen Siriako erregimenarekin bat egin, ez eta erregimenaren kontrako koalizioarekin. Aitzitik, gure hirugarren ildo ezarri genuen: KD. Udaberri Arabiarra hasi zenean, guretzat guztiontzat itxaropengarria izan zen, emakume arabiarrek diktaduraren kontra altxatu zirelako. Diktadura eraitsi zuten, baina beste bat etorri da, eta emakumeen egoera are okerragoa da orain, ez baitzeukaten alternatibarik. Rojavaren kasuan ez da hori gertatu kurduak

prest zeudelako eta kaosa hasi zenean, beraien alde baliatu zuten.

Rojavan, adibidez, kooperatibak jarri dituzte martxan, nekazaritza-eredu propioa ezartzeko. Kooperatiba hauen neurrietako bat izan da ikustea zer lur zeuden erabilgarri eta nola ari ziren erabiliak izaten. Hartara, langabezian dagoen jendea bideratu daiteke jorratu gabe dauden lurretara.

Azken asteak oso itxaropentsuak izan dira Kobanen.

Bai. Baina, orain Kobane berreraiki behar da: azpiegiturak eta beste hainbat gauza. Deialdia egiten diogu jende guztiari, denek lagun dezakete, dirua emanda edo hara joanda: arkitektoak, sendagileak... denetik behar dugu. Helburu horre-

Konfederalismo demokratikoa

Abdullah Öcalan PKK-ko buruzagiaren proposamena da. 2005. urtean aurkeztu zuen, espetxean zela, nazio-estatuaren ikuspegi tradizionalarekiko kritika eta alternatiba modura. Öcalanen esanetan, estatutik gabeko pertsonen sistema demokratikoa da. Burujabetzan oinarritutako proposamen bat da, hala elikadurarena nola ekonomikoa, eta ekologismoa eta feminismoa ditu ardatzetako bi. Autokudeaketarako eredu bat da, non gizarteko sektore guztiek beren antolakuntza-egitura propioak sortuko eta kudeatuko dituzten. Askatasunaren ideologia du oinarri teorikoa: pertsona askatzea lortu behar da, gero pertsona horrek harreman askeak sor ditzan, alegia, jabetza-ikuspunturik gabekoak. Harreman horiek eraikiko dituzte familia eta gizarte demokratikoa.

tarako, elkartasun-batzordeak martxan jarri ditugu nazioartean, baita hemen bertan ere, Euskal Herrian. Hain zuzen, egunotan egin ditugun hitzaldietan, askok galdetu didate ea zer egin dezaketen Kobaneren alde. Behar-beharrezkoa zaigu laguntza guztia: egitura berri bat eraikiko da Kobanen. Mundu berri bat zabalduko da. ■

Zer egingo dugu **HIRIA GUREGANATZEKO** eta **ERASO SEXISTARIK GABEKO** izateko?

HIRIA GUREGANATUZ

Hirigintza arlotik. Hirigintza ordenantzen moldaketan bidez argizteriak aztertuz, lorezaintzan arreta jarriaz, tunelak eta pasabideak saihestuz, eta abar.

Hiriaren erabileran eraginez. Jarrera desegokiei aurre egiteko, kontzientziazio kanpainak, prestakuntza, mugikortasun baliabideen egokitzea, berdintasun planak eta autodefentsa feminista sustatuko dira.

Eraso sexistarik gabeko hiria izan dadin.

ERASO SEXISTEN AURKA EGITEA DENON ARDURA DA

Donostia Urola
Ayuntamiento de San Sebastián
Berdintasun Bulegoa
Negociado de Igualdad

Hizkuntzaren aurkako jarrera baino, uzkurkeria nagusitzen da

19. Korrika abian da: hil honen 19an Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da 29an. Urepele aldean ibili gara. Handik abiatu gara tokiko euskararen trenpua ezagutzeko. Baxenabarreko euskararen egoeraz mintzatu gara orokorki eta Baigorri haranekoaz bereziki. Xole Aire urepeldarra eta Mattin Bacho arberaztarra lagun izan ditugu solasaldian.

| MIKEL ASURMENDI |

HIRU HERRI ELKARGO dira Nafarroa Beherean: Amikuze, Garazi-Baigorri eta Iholdi-Oztibarre. Legez ez dira elkargo bateratuak, alta, zenbait lan elkarrekin egiten dute. Adibidez, 2007an euskara teknikari lanpostua sortzea adostu zuten. Mattin Bacho da langilea: “Ene lanpostua ez da iraunkorra, urtero berritzen da akordioa”. Bacho Arberatzen sortua da 1980an. Gurasoak eta haien belau-naldikoak euskaraz aise mintzo dira: “Amikuzen euskararen transmisioa tanpez eten zen halere, beste hainbat eskualdetan bezala. Eskualdearen berezitasuna muga egotea da”.

Xole Aire urepeldarra da, 1973an sortua, Xalbador bertsolariaren biloba. Irakasle izan da Gau-eskoletan (AEK) eta ikastoletan (Seaska). Alta, laborantzian plantatzea deliberratu zuen sorterrian, Urepelen.

Korrikaren abiaburu Urepele

Korrika Urepeletik (316 biztanle) abiatzeko eskaera tokiko euskaltza-leek egin zuten. Korrika ez da bertatik sekula iragan: “Bada, iragan behar luke”, pentsatu zuten. Xole Aire sinetsi ezinik ari zaigu: “Alta, mila arrazoi daude pasa dadin. Bat: Baigorri ibarra biziki euskalduna omen da, baina euskara galtzen ari da, inarrosaldi bat behar du”. Bitxia dirudi, baina Korrika ez da Baigorri ibarretik behin ere pasa: “Gu Orreagara edo Garazira joan izan gara. Hunkigarria da hamar egun eta gauetz lekukoa pasatzea eskutik eskura, sinbolikoki izugarria da.



Xole Aire laboraria eta Mattin Bacho euskara teknikaria.

Emozio handiz egiten dut lasterka eta aldi honetan are emozio gehiagoz egingen dut”.

Urepeletik abiatzea lortzea ez da aise izan. Bailarako AEK-ko kideek eskaera egin zuten eta erantzuna: “Korrika Urepeletik?”. Eugi urrun dago (urepeldarrak herri horretara joan izan dira Korrikan parte-hartzeria; hegoaldera), ingurunea hutsa dela pentsatu zuten, irudiz, AEK-ko arduradun nagusiek: “Baina gu hemen bizi gara, euskaldunak gara”, tokikoen arrapostua. Argudioak hobeki prestatu

eta eskaera berritu zuten. Hauexek arrazoiak: 1. AEK-k ikastaldi ia guztiak Urepelen egiten ditu. 2. Xalbadorren herria izatea. 3. Eskola elebidunak sortu izana. 4. Ikastolen eta eskola elebidunen ondoren haurtzaindegia sortu da. 5. Adur elkartearen sortzea, jendarteko gaiak, kultura eta euskara bereziki sustatzen dituen.

Adurrek eskatu zuen Korrika Urepeletik pasatzea, bederen: “Ez ziotela bi aukerei eza emanen pentsatu genuen. Eta hara, Urepeletik abiatzea erabaki zuten”.

Baigorri ote da euskaldunena?

Baigorriko euskararen egoeraz mintzatzean, saihestezina da Baxenabarre hizpide hartzea. Baigorri eskualde euskaldunena dela diote askok, baina euskara ez da “salbu” ezta Urepelen ere. Bachok horrela dio: “Egoera ez da bera Baxenabarre osoan, ezberdintasun anitz dira kantonamendu batetik bestera, baita eskualdeetan ere. Baigorri eta Oztibarre antzekoak dira. Garazi eta Amikuze herrien arabera, eta bistan da, hiriburuak erdaldunagoak dira. Euskara lanjerrean ikusi duten herrietan kontzientzia gehiago piztu da, naski”. Euskara teknikariaren aburuz, ezagutzan eta erabilpenean dago ezberdintasuna. Konparazione, Baigorri euskaldunagoa da eta Amikuze erdaldunagoa, baina kontzientziari dagokionez, Baigorri ez dira baitezpada ohartuagoak. Euskaldunagoak dira, baina ez euskaltzaleagoak. Bachok Korrika kontraesanean bizi du nola-bait: “Hasieran ez dut gogo berezirik, baina lasterka egiterakoan ni ere hunkitzen naiz. Hainbeste jende ikusteak eta leloak aldarrikatzeak indar izugarria ematen dit. Alta, badut kezka bat, antzerkia edo egun bakarrek ahalegina den? Sentimendu hori badut”. Korrikak kontzientzia zuritzeko balio al du?

Dena dela ere, Korrika beharrezkoa ikusten dute bi solaskideek. Bachok eman digu horren adibidea: “Ni futbolearen aritu naiz eta Korrika egunaren aitzinetik eta ondotik euskara gehiago erabiltzen du jendeak. Korrika akuilua da, jendea kontzientziatzeko balio du. Jende berria hurbilazten du euskal mundura”.

Kontzientzia suspertzea da gakoa

Duela hiru urte, etorkizuna irudikatze xedetan, *Aldude 2050* gogoeta kolektiboa egin zuten Urepele aldean: “Hiru animatzaileak erdaldunak ziren. Taldeka mintzarazi gintuzten: gai sozialez, ekonomiaz eta kulturaz.

“Memento batez gogor egin behar zen eta orain konfiantza egin behar zaie belaunaldi berriei”

Xole Aire

Ni, nahita, ez naiz hizkuntza taldean sartu. ‘Ez gaitezen euskaltzaleak beti toki berean ari’, pentsatu nuen. Harritu nintzen, euskaltzaleak ez diren gazteak hizkuntza taldean sartu baitziren. Batzuk ez dira euskaltzaleak, baina ohartu dira euskara galtzen ari direla. Haietako batek kezka handia agertu zuen. Ohartu naiz belaunaldi berriei konfiantza eman behar zaiela, badute ardura gisako bat”.

Abertzaleek euskararen kinka larriaren aitzinean zorrotz jokatu ote dute? Urepeldarra mintzo da: “Menturaz bai, baina ulergarria da, euskalduntasuna lanjerrean baitzen. Xalbadorrek ‘hemen badago ama bat bere haurrek hila’ erran zuen. Nik hori irakurri nuen lehen aldian negar egin nuen. Gure ama hizkuntza gu ari gara galtzen. Memento batez gogor egin behar zen eta orain konfiantza egin behar zaie belaunaldi berriei”. Iritzi berekoa da Bacho arberaztarra.

“Euskara ez da traba, erdaraz egiteko mentalitatea baizik. Botere handia duenak euskara baliatu behar du euskara bultzatzeko”

Mattin Bacho

Herriko Etxeetan euskaraz

Herriko Etxeko bilkurak euskaraz egiten dira? “Urepelen bai!”, dio Airek. “Hori biziki interesgarria da” berretsi du Bachok. Herri kontseilua euskaraz eta modu naturalean egitea

izugarria da. Bacho asmo horrekin ari da, besteren artean, Baigorriko Curutchet axuant eta euskararen arduradunarekin: “Kontseilu kide batzuk erdaldunak direnez, bilkurak frantsesez egiten dituzte. Euskaraz eginek ere, beren burua itzultzen dute. Baina bilkura arraroa bilakatzen zaie eta fite uzten dute euskara”. Bachoren hitzetan, hasteko, ausardia da eskas. “Hegoaldean hori gauditua da. Iparraldean ez da oraino kausitua. Ez dago bermerik euskaraz egiteko. Itzulpen araurik ez dago”. Donibane Garazi edo Baigorriko herriko etxeetan frantsesez egiten da. Arazoa ez da ere itzulpen sistema ez egotea: “Gehiengoa euskalduna izanik ere, euskaraz egiteko galdea ez da pausatzen. Ez da batzorde bat sortzen horretaz gogoetatzeko. Politikariak eman lezakete urrats hori. Ordua da”.

Euskaldunek aldarrikatzen duten instituzioa Herri Elkargo egitura izan liteke. Baxenabarreko Herrien Elkargoak bidea egiten lagundu lezake. Bacho lanean hasi eta 30 auzapezekin elkarriketatu zen. Adibiderako, Uharte Garaziko auzapezarekin mintzatu zen: “Zer egin nahi dugun azaldu nion euskaraz, baina berak frantsesez erantzun zidan”. Euskalduna izan arren, auzapeza frantsesez ariko zela espero zuen: “Auzapezak pikoa eman zidan. Ez genuela euskara bera ematen erratea ere. Nik ‘ez dugula euskara bera ematen? Elkar ulertuko dugu’, erran nion”. Etsipen puntu batez mintzo da: “Nik aitaren eskua dut, Oztibarrekoa hein batean. Amikuzekoa naiz eta Garazin lan egiten dut, Donazaharren. Nik ez badut bere eskuara ematen, beste probintzia, eskualde edo euskaldun berri batek, zer orduan?”.

Zorroztasuna eskas da oraindik ere, gure solaskideen gurasok izan zuten kuraia eskas da. Garai hobea bizi dute euskaltzaleek, baina hau ere ez da erraza, egoera berriak gaintitzen ikasi behar dute: “Euskara ez da

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB

Baigorri bailarako ikasle kopurua (2014ko azaroa)

Eskola	Eredua	Ikasleak
Banka (Oinarrizko maila)	Frantsesez	4
Banka (O.M.)	Ele biz*	14
Bidarrai (Lehen maila)	Frantsesez	4
Bidarrai (L.M.)	Ele biz	37
Ortzaize (L.M.)	Frantsesez	1
Ortzaize (L.M.)	Ele biz	32
Baigorri hiriburua (L.M.)	Frantsesez	2
Baigorri hiriburua (L.M.)	Ele biz	44
Arrosa (O.M.)	Frantsesez	3
Arrosa (O.M.)	Ele biz	25
Urepele (O.M.)	Frantsesez	0
Urepele (O.M.)	Ele biz	14
Aldude Mendi Alde (O.M.)	Frantsesez	0
Aldude Mendi Alde (O.M.)	Ele biz	24
Ortzaize (O.M.)	Frantsesez	3
Ortzaize (O.M.)	Ele biz	31
Baigorri hiriburua / Donostei (L.M.)	Frantsesez	26
Baigorri hiriburua / Donostei (L.M.)	Ele biz	41
Ortzaizeko Ikastola (L.M.)	Murgiltzea	96
Baigorriko Ama Ikastola (L.M.)	Murgiltzea	31

■ Publikoa ■ Giristinoa ■ Ikastola

Orotara: **432 ikasle Baigorriko 9 eskoletan**

Murgiltze ereduan: **%29,39** Ele biz: **%60,65** Frantsesez: **%9,96**

*Eskolaren arabera: frantses ikasgaia salbu, dena euskaraz; euskaraz frantsesez baino gehiago; bi hizkuntzetan berdin.

traba, erdaraz egiteko mentalitatea baizik. Alderdikeriatan sartu gabe, botere porroska edo handia duenak –interpretazioaren arabera– euskara baliatu behar du euskara bultzatzeko”, diote biek. Politikariak frantsesez ari badira, herritarrek haien mintzoa dute eredu: “Alta, abertzaleen ideiak ari dira kontuan hartzen, abertzaleak ez direnek ere euskara salbatu behar dutela baitiote. Garai batean hori pentsaezina zen. Noski, elez erraten dute, gero euskaraz mintzatu? Zein heinetaraino? Heldu diren hamar urteetan ikusiko da ea politikari nagusiek hitzetatik obratzera pausoak ematen dituzten”, dio Airek.

“Euskararen kontra dagoen politikaririk baden?”, galdeturik: “Gero eta gutxiago, baina horrek ez du alde

direla erran nahi. Euskara zertan den ikusirik, aski dute ‘ez naiz kontra’ esatea”. Bachok honela dio: “Politikariak alde edo kontra diren eztabaidatzea bezain garrantzizkoa, uzkur agertzen diren politikarien jarrera ezagutzea da. Funtsezkoa da galdera konkretuak pausatzea. Adibidez, Herri Elkargoko batzorde batean euskaraz egitea erabakiko balitz, erdaldunek parte har dezaten bitartekoak jarri beharko lirake. Baina, hautetsiek politika frantsesez egiten dute, hasteko legez horrela egiteko bortxatuak direlako. Galdera da, ‘prest zaudete zenbait unetan euskaraz egiteko?’. Haatik, posible den kasuetan, euskaraz baitakite, ez dakigu akort diren, ez dugu oraino urrats hori eman. Euskarra indartzeko parioa hor dago”.

Seaska, AEK, Euskal Irratiak...

Seaska, AEK edota Euska Irratiak gabe, euskara ez litzateke egongo egun dagoen tokietan: “Gu haur ginelarik, gure gurasoen belaunaldi-koek ‘euskara hil urran da, fite, fite egin behar dugu’ pentsatu zuten. Seaska sortu zuten eta erotzat hartu zituzten. Ez da haiek goretsiagatik, ez lukete nahi gainera, baina ez zaie aski aitorpenik egin”. Xole Airek garai hartako adibide bat eman digu: “Guk, anaia-arrebak, fite ulertu genuen euskaraz aritzea politikari lotzea zela. Baigorriko kolegiara joan ginelarik zaila izan zen. Gelan sartzen ginen eta batzuk ele-meletan hasten ziren”. Etxera joan eta “zer egiten dugu guk gaizki?” galdetzen zuten. Arrapostua: “Batzuek euskara eta borroka armatua lotzen dituzte”. Egoera politikoa biziki minbera zen orduan. Aireren kezka nagusia bere alabei “euskaraz mintza!” erran behar ez izatea izan da. Euskaraz mintzo dira naturalki eta hori lorpen handia da, bere pozarako. Egun euskara ez da politikari lotua, edo ez hainbeste. Pario hori irabazia da.

AEK-ren lanaz mintzo da Mattin Bacho. Hona euskara ikasten ari direnei buruzko bere ikusmoldea: “Euskaldun berriek ez dute mugarik, ez badute hitz bat ezagutzen xerkatuko dute hiztegia edo galde egingen dute. Alderantziz, hainbat euskaldunek euskara ematen dute, baina betiko erranaldiak darabiltzate, eta mintzairan zerbait berri sartzen dugularik ez dute ikasten. Nik hor ikusten dut beste gogoeta bat egin beharra”.

Inkestak zuzenak izanez gero, 16 urtez gorako 50.000 euskaldun daude Iparraldean: “Baina ez dute erabiltzen. Euskaraz mintzatzea ez dute euskaldun berriek bezala hartzen, hots, konkista gisako bat bezala. Berehala erraten dute ‘ez dakit nola erraten den’. Konkistatzaileen espiritua behar dute euskal hiztunek”, dio Mattin Bachok. Xole Airek bat egiten du ikusmolde horrekin: “Badira euskara menperatzen dutenak, baina ikastolatik datozen haurrak entzun eta ‘hori ez da eskuara, ez da gure eskuara’ diote”.

Aitzakia edo estakuru ote den? galdetuak: “Horiek ezin dute egoera gaingitu, ez dute euskara gaurkotu nahi”. ■

Aldaketarako, lanean

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |



Katakarak

Kokapena: Iruñea, Kale Nagusia 54.
Jarduera: Liburu salmenta, ostalaritza, eta kultur eskaintza.
Kide kopurua: 11.



Irabaziak banatzea debekatzen duen kooperatiba egitura sortu dute eta diru hori proiektua indartu edo berriak sortzeko erabiltzea adostu, etekina beharrean bideragarritasuna baitute helburu.

SUKALDARIA da Xabier Maeztu, baina ez du sekula igande eta jaiegunetan lanik egin behar izaten. Ez berak, eta ezta bere lankideek ere. Informatikaria izateko ikasketak egin zituen arren, praktikaren bidez eta pixkanaka ikasi du ofizio berria. Dena dela, labana eta mantala albo batera utzi eta ordenagailu edo konexio arazoak konpontzea egokitzen zaio maiz; ez baita ohiko jatetxe bateko sukaldaria, kantinaz gain liburudenda eta erabilera anitzeko aretoa ere badituen Iruñeko Katakarak “enpresa politikoko” kide baizik.

Hamaika dira guztira kooperatiba osatzen dutenak, eta Katakraken bertan egiten dute lan denek: liburu saltzaile gisa batzuk, sukaldean edo zerbitzari jardunetan besteek. “Uste dugu interesgarria dela ekimen hau modu profesionalean eta lanpostuak sortuz aurrera eraman ahal izatea”, dio Maeztuk. Lan ordainduarekin, baina asanblada bidez eman diote forma Iruñeko Alde Zaharreko Kale Nagusian gorpuztu duten proiektuari. Erabaki garrantzitsuenak astearteroko bileran hartzen dituzte, kide guztien iritzia aintzat hartuta.

Urtebete eskasean erreferentziatzeko bilgune bilakatu da Kata-

krak, eta “harrera bikaina” ari dira izaten. Hitzaldi, prentsaurreko eta abarretarako erabiltzen duten aretoa zein kantina jendez gainezka izaten da maiz. Zaila da ordea arrakasta hori ulertzea proiektuaren jatorria zein den jakin gabe. 2006an, Iruñeko herri mugimenduetan zebiltzan zenbait lagunek La Hormiga Atómica sortu zuten, liburu bidez hiriko politikan eragiteko asmoz. Paperaren bueltan hasi zenak, kafetegi eta zentro sozial tankera hartu zuen laster, eta bost urteko ibilbide “emankorra” egin zuen, bidean kooperatiba bihurtuz.

Orduko balio eta egiteko modu bertsuetan oinarrituta sortu dute Katakarak ere, lan-talde, lokal eta erronka handiagoeekin. Bidean ez dute herri mugimenduekin loturarik galdu, eta horrek berak ahalbidetu du hasierako asmoak gauzatu ahal izatea. Izan ere, proiektua martxan jarri ahal izateko gaur egungo lokala erosi behar izan zuten, inbertsio handia eginez. “Diruaren zati bat banku etiko bati eskatutako maile-

guarekin lortu genuen; beste zati bat ordea, lagun, senide eta abarren mailegu pertsonalek eta crowdfunding bidezko ekarpenek osatu dute”.

Finantzazioa bezain aipagarria da euren eguneroko dinamika. Lan-orduen banaketa asanbladan erabakitzeaz gain, errotazio sistema bat ere badute. “Lankideen beharra nolakoa den ezagutzea garrantzitsua da euren azalean jarri ahal izateko”. Horregatik erabaki dute aste-buru eta jaiegunetan ez irekitzea. Maezturen arabera: “Liburudenda igandez irekitzea kompetentzia desleiala litzateke, eta hori itxita mantenduz gero, besteek ere jai izatea da bidezkoena. Halako egunak onak izaten dira taberna edo kantinarentzat, baina gure balioak diruaren gainetik daude”.

“Hau dena aldatu nahi genuke” dio Kale Nagusira begira dagoen erakusleihoko estalkiak. Bide horretan, lan egin, lan-harremanak izan eta ekimen bat aurrera eramateko bestelako moduak badaudela frogatu dute dagoeneko. ■

Kosmos txiki baten isla



LUR AZPIAN egon naiz gaur. Ukrainar armadak oraindik botatzen dituen misiletatik ihesi doazen familiekin. Babesleku batean. Pertsonok kosmosak sortu behar ditugu, gure mundu txikiak, ingurunea gureagotu. Lur azpiko babesleku batetara sartzean kosmos txiki asko ikusi ditzakegu (...) Kosmos txiki horietako bat sortu du haur honek.

Bere gustuko super heroien irudiak ditu ohe gainean, berak egindako marrazki baten ondoan. Lur azpiko babesleku bat baino toki inpertsonalagorik (eta krudelagorik) ez dagoen tokian berak lortu du. Aitak, gustura egotearren untxi bat erosi zion. Dirudenez Pasah txikiari kosmosa osatu zaio eta nire aurrean, gustu-

ra lo hartu bere untxia besoetan duela. (...).

Andoni Lubaki

Desenfokaeak blogean (argia.eus), Andoni Lubaki Donbasetik egiten ari den kronika, bideo eta argazkien bilduma.



www.bertsozale.eus

2015

FINALAURREKOAK

BERRIOZAR
Entzunaretoa
Martxoak 7, 17:30

LESAKA
Kultur Etxea
Martxoak 8, 17:30

1.264 hizkuntzari buruzko informazioa hiztegi bakarrean

HASI A'UWEN HIZKUNTZATIK eta zig-eraino, guztira 1.264 hizkuntza. Munduan 6.000 bat hizkuntza badaude, Termcat terminologia zentroak gutxi-asko seitik bat zerrendatu eta informazio oinarritzakoa biltzea lortu du. *Munduko hizkuntzen hiztegi* alfabetikoki ordenatuta daude hizkuntzak eta bakoitza 19 hizkuntzatan nola den emana dago, hala nola, katalanez, arabieraz, gaelikoz, alemanez, ingelesez, espainieraz, euskaraz, frantsesez, galegoz, guaranieraz, italieraz, japonieraz, nederlanderaz, okzitaniaraz, portugesez, errusieraz, swahiliz, amazigeraz eta txineraz.

Hiztegiaren, hizkuntza bakoitzak besteekiko dituen senidetasunak irakur daitezke, baita non hitz egiten den, zein den egoera soziolinguistikoa, zenbaterainoko bizindarra duen, ezaugarri historikoak, eta abar.



Tanzanian, Victoria lakuaren ekialdean bizi da zanaki jendea. Haien hizkuntzaren berri jaso du hiztegiak.

Bilaketak egiteko bi modu daude. Alfabetikoki hizkuntzaren izena bilatuta, edo estaturen baten izena eskatu eta bertako hizkuntzen zerrenda eskaintzen du. Inoiz entzun gabeko hizkuntzak asko eta asko dira, hala nola, Amerikako kaa-por, pacaguara, haisla eta waikino, eta Afrikako wa maathi, mass, fanakalo eta zanaki.

Bahea

Aingeru Epaltzak *Noticias de Navarra* esanak:

"[Otsailaren 19tik], euskarazko irakaskuntza erabat legezkoa da Nafarroako eremu ez euskalduneko sare publikoan. (...) Herriren batean lehen mugimenduak hasi badira ere, irabazi berri den eskubideak teoriaren lainoan gelditzeko itxura du, oraingo ondorio praktiko handirik gabe. Eta gainera, hain dago urrun gure ametsetatik! Hain zuzen ere, gure ametsetatik hain urrun zegoelako, duela 20 urte, ezker abertzaleak bere botoak gehitu zizkien UPNkoei, onetsi berri den aldaketa berdina atzera botatzeko. (...) Ondorioz, irekitako zirrituari etekinik batere atera ahal izan gabe gelditu gara bi hamarraldi hauetan. Orain, gauzak desberdin egiteko gogoia sumatzen da bazterretan. Lehengo eguneko bozketa lekuko. Hori ez da eginen, ordea, memoria historikorik gabe. Nik oroimen ariketa pixka bat faltan bota dut egun hauetan".

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Lan prekarietateak eta soldata desberdintasunak emakume aurpegia dute

KAPITALISMOAK sortu eta azken urteetako krisiarekin areagotu den lan prekarietateak eta soldata desberdintasunak emakume eta gizonei eragiten die. Baina datuek behin eta berriro baieztatzen duten moduan, emakumeak dira gehien sufritzen dutenak. Emakume aurpegia dute.

Lan prekarietatearen kasuan Euskal Herrian %22,3 daude egoera horretan, Europar Batasuneko batez bestekoaren 8 puntu gainetik; baina emakumeen arteko lan prekarietatea %25,9koa da, 11,2 puntu gainetik alegia. Bestalde, kontratuen %93,5 aldi batekoak dira, batez ere lan egun zatitua dutenen artean. Ipar Euskal Herriaren kasuan, emakumeen artean lan prekarietatea %80koa da. Soldatari dagokionez, emakume eta gizonen arteko desberdintasuna ere oso larria da. Euskal Herri osoan, INE eta INSEE estatistika institutuen arabera emakumeek gizonen baino %27 gutxiago jasotzen dute. Eskura dugun azkeneko inkesta estatistikoa 2012koa da, eta orduan emakumeek batez beste 21.192 euro kobratzen zuten, gizonenekoek aldiz 28.880 euro.

Egoera injustu honek ekintza politiko erabakigarriak eskatzen ditu, duintasuna eta berdintasuna administrazio eta enpresen erabakien erdigunean kokatuko dituen aldaketa funtsezkoa lortuko badugu. Zalantzarik gabe, kasu askotan gizonen gainetik dagoela uste du, baina horrez gain sistema kapitalistak ere prekarietatea eta desberdintasuna sortzen du. Odolean darama. Gizonezkoak uste ustel hori alboratzen ez duen bitartean eta egungo sistema desegin eta alternatibo bat sortzen ez dugun bitartean, prekarietateak eta desberdintasunak hor jarraituko dute; beste sistema batzuk antzekoak dira horretan (sozialista, komunista, arabiarra...). Euren burua antikapitalistatzat eta ezkerrekotzat dutenek (politikariak, sindikalistak, mugimendu sozialetako kideak...) gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunean oinarritutako eredu sozial eta ekonomikoa eraikitzeko borrokatu behar lukete.

Juan Mari Arregi

Boko Haramen oinarri soziala dira esklaboen umeak

Deabru berria Sahara azpialdeko Afrikan 'Boko Haram' deitzen da. XXI. mendeko jihadistak fanatikoen adibidetzat ezagutua da 2009an Nigeriako gobernuaren kontra matxinatu zenetik burututako triskantzengatik. Jeke arabiarren finantzaketa? Baietz. Baina Afrikan Jihadak erroak sustraiturik dauzka mende luzetako injustizietan.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ANTZINAKO ESKLABOAK DIRA, gutxienez azken bi mendeotan morrontzan zanpatu dituzten masa handiak, Afrikako Jihadismoaren oinarri soziala". Horra *Le 1* astekari frantsak 43. zenbakian "*Afrique, les visages du Dhijad*" (Afrika, Jihadaren aurpegiak) gaiaren inguruan dakartzan tituluetako bat.

Astekari bitxia da *Le 1*: kioskoan DIN-A4 edo *newsmagazine* formato tipikoarekin aurkituko duzu, baina bere 16 orriak irakurtzeko maindire moduan zabaldu beharko duzu, 65x90 cm-ko paper bakarra osatu arte. Lehen *Le Monde*ko zuzendari izandako Eric Fottorino dauka nagusi. Beraz, irudimentsua baina Frantziako *establishment*ari ondo itsatsia ere bai. Maila handiko idazle eta adituen artikuluak ekartzen ditu.

2009an matxinatu zenetik, Boko Haram bihurtu da Afrikako amesgaiztoa: 5.000 baino gehiago hil ditu, asko modurik ikaragarrienean, 500 gizon, emakume eta haur baino gehiago bahitu, tartean esklabutzan saldutako neskak... Milioi eta erdi baino gehiago dira borroketatik ihesi joanak. Erlijiozko gerrarik basatiena gaur Saharaz beheko eskualdeetan gertatzen da, horrela esan badaiteke.

"*L'ADN de Boko Haram*" idatzi du Marc-Antoine Perouse de Montclos ikerlariak, laguntza humanita-

rioaren eta politikaren arteko loturez liburu bat plazaratua daukanak. Dio, ukatu gabe Al Kaeda edo Daech-Isisengandik jasotako laguntza, Boko Haramen sustraia lekuan bertan aurkitu behar direla, benetako oinarri soziala daukala.

Nigerian bertan taldeak duela bi urte 500-1.000 gudari omen zeuzkan. Baina gobernuak larrialdi egoera ezarri ostean 4.000 gizonetaraino handitu zuen tropa, eta gaur 8.000-10.000 inguru edukiko omen ditu. "Bestela esanik, zenbat eta bortitzagoa Boko Haramen kontrako errepresioa, orduan eta gehiago indartu da. Honek zalantza jarri beharko luke soluzio militarren eraginkortasuna".

Taldeak esku hartu du eskualdean dauden liskarretan eta musulman askoren fidelitatea bereganatu du lurra banatuz, Jihadaren aitzakiantan burututako sarrasketatik ihesi joandako kristau eta animistek lagatako lurra. "Xariaren izenean Boko Haramen aldeko jendeak halako nekazaritza erreforma erlijioso bat antolatu dute. Horrela ebatzi dituzte urtero lurren erabilerearen inguruan zeuden eztabaidak".

Astekariak elkarriketatu du Jean-François Bayart, Centre d'Etudes et Recherches Internationales-ko (CERI) zuzendari izana. CERI Frantziako Estatuaren erre-

Boko Haram taldeak berak Interneten ipinitako bideotik aterea da ondoko bi irudietan handiena: Abubakar Shekau buruzagiak iazko udazkenean gisa honetan eman zion ezetza Nigeriako Gobernuak luzatutako tragua eskaintzari. Perouse de Montclosen idatzitako duenez, "Boko Haramen izaera sinplifikatzea da esatea zoro banda burugabe bat dela urruneko sponsor arabiar aberatsek diruz ase, hori da ez ezagutzea gaur Nigeria dena baino urrunago iristen zen Borno inperio zaharreko gizartearen konplexutasuna". Irudi txikiak da Ustaz Mohammed Yusuf (1970-2009), Boko Haramen lehenbiziko liderra, polizia nigeriarrak atxilotu zuen egunean. Oraindik *Youtuben* ikus daiteke nola galdekatu zuten poliziek. Gero kasernako atarian tiroka hil zuten jende askoren aurrean; ihes egin nahi omen zuen. Yusuf hilda, ondorengo buruzagiek bortizkeria are handiagoz gogortu dute Jihada Nigerian.

ferentzietakoa da atzerri politika, immigrazio, bortizkeria politiko eta segurtasun aferetan. Bayartek beste liburu gehiagoren artean "*L'Islam Republicain*" plazaratuta dauka. Elkarriketan argi aitortu du Frantzia Malin militarki esku hartzearen alde egon dela, zalantzarik gera ez dadin. Bayartek esandako hitzen laburbilduma da ondoko guztia.

Jihadean kontsolamendu

"Saharaz beheko eskualdean —dio Bayartek— nazioa gezur historiko handi batean oinarritzen da: esklabismoa zurien kontua zela. Zuriak errudun direnik ezin da ukatu, baina ez dira izan bakarrik eta beti *joint-venture* gisa aritu dira elkarlanean beltz batzuekin". Eta XIX. mende hasieran esklaboaren salerosketa itzali zenean Atlantikokoan zehar, Afrika barneko esklabismoa hedatu zen.

XIX. mendean Jihada egin zuten buruzagietako batzuk esklabistak ziren, hala nola Mandinga erresuma sortu zuen Samori Ture. Eta gerlari jihadistak esklabozaleen kontra oldartu ziren beste musulman batzuk, hala nola murida jendea, kofradietan antolatzen zena eta dena. Gudu gogorren bidez lortu zuten batzuek askatasuna eta baserritar gisa instalatzea, kakahuete laboreen inguruan,



Boko Haram taldeak 2002an sortu zenetik Izalaren islamista *kie-tistatik* jihadismoan barrena islamismo milenaristaraino egindako ibilbidearen gakoa errepresioan dakusa Bayartek, beste aditu askok nabarmendu duten gisan. 2009an jendearen aurrean exekutatu zuten Nigeriako agintariek Ustaz Mohammed Yusuf, Boko Haramen lehenbiziko buruzagia. Horrek eta batez ere gobernuaren armadak gerrillarien bila herritarren artean egindako sarraskiek eman zioten abiada Boko Harami.

Boko Haramen erasotzen ditu zurien eskolak (hausa hizkuntzan *boko* eskola da eta *haram* debekaketa), ustelkeriaren eskolak direlakoan. “Mendebaldeko jakintzak estatu postkolonial zanpatzaile eta zurrupatzailea ekarri du. Ikusi zertan xahutzen duen Estatuak petrolioaren dirua, herritarrak zanpatzen ditu haiei laguntzeko ordez. Jakintza horrek pobrezia baino ez du ekarri. Xariarekin aldarrikatzen dute zuzenbide estatu bat justu gaur Nigeriakoa denaren kontrakoa”.

Azken hamarkadotan Mendebaldeko Afrikako herrialde askotan liberalizazio politikekin galdu dira zerbitzu publiko sare osoak. Hezkuntza eta osasun mailan, hutsunea eskola eta ospitale islamikoek bete dute, batzuetan bertako elite waha-bitak aberastu berriak finantzaturik.

Boko Haramekoak kriminalak direla? “Egia da hiltzen duela. Baina askoz errazagoa da hiltzaileoi barbaro deitzea agenda sozial eta politiko bat daukatela onartzea baino”, dio Jean-François Bayartek. ■

baina gainerako gehienek osatu zuten gaurdaino luzatu den morroi masa zabala.

“Gaur bertan Mendebaldeko Afrikan mundu guztiak daki nor den esklaboaren ume edo noblearen ume, izenetik, barre egiteko moduagatik, aristokratek estilo handiagoz irri egiten badakite. Klase klitxe garbiak daude, Pierre Bourdieu [soziologo] tropikotara egokituta esango genukeenez”.

Lehenengo esklabo gaur morroigisa baztertuei bi mendez xurgatu diete odola XIX. mendetik indarra hartuta dagoen aristokrazia beltzak. Joan den mendean Jihada egin zuten buruzagi esklabistek zanpatu dituzte urteotan. Baina morroiok ere denborarekin Jihadean eta sala-

fismoan aurkitu dute kontsolamendua. Islamak esaten duenez sinestun guztiak berdinak direla, Mauritaniatik Nigerrera, Malin bezala Nigeria iparrean, morrontza den arazo ez aitortuari erantzun bat eman diola. Islam horrek bertsio ezberdinak baditu parajeotan.

Bada korrante *pietista* bat erlijio galetan oso zorrotza baina politikan nahastan ez dena. Salafista horien mugimendua da Izala 1970etik. Gero badira Jihadaren aldeko guda-riak, Allah gurtzen ez duen sultanaren –Mendebaldearen– eta honen Nigeriako ordezkari petrolioz ustelduen kontra borrokatzen dutenak. Hirugarrenik Bayartek aipatzen du 1980tik lanean ari den korrante milenarista bat.





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira



Nork egingo du orain?

ELKARRI 1992ko abenduan sortu zen eta ilusioa ekarri zuen euskal gizarteko sektore zabaletara, batez ere ezker abertzalearen baitara. Bost urte lehenago sinatutako Ajuria Eneko Ituna bere eragina izaten ari zen gizartean: ezker abertzalea politikoki eta sozialki baztertzea zen itunaren helburu nagusia eta isolamenduaren zirimiria esparru sozial hori blai utzi zuen apurka, ia oharkabean.

Ezker abertzaleak indartsu ikusten zuen bere burua 80ko hamarkadaren amaieran eta nekez irudika zezakeen Estatuaren eta gainerako indar politikoen presioa horren eraginkorra izango zenik. Erresistentzia irabaztea zen orduan. Hamarkada bat geroago iritsiko zen ilegalizazioaren zutoinak ere sasoi hartan finkatu ziren.

Testuinguru horretan sortu zen Elkarrri, elkarrizketaren eta akordioaren aldeko gizarte mugimendua. Hilabete gutxitan berehala irudikatu zen haren eginbeharra ez zela txantxetakoia izango. Giro hartan, gizarte mailan hain ahul ziren elkarrizketa eta akordio politikoaren kultura sustatzea basamortura ureztontziarekin abiatzea zen. Baina tanta han tanta hemen, gatazka politiko bat bideratzeko elkarrizketaren eskaera gizarte aldarrikapen bihurtu zen apurka. Gaurdaino iraun du.

ETAk 1993an bahitu zuen Julio Iglesias Zamora eta Bakearen Aldeko Koordinadorak lazo urdina atera zuen kalera bahiketa arbuiatzeko. Lazo urdina eta ezker abertzaleak bultzatutako “Bai Euskal Herriari” kanpainak aurrez aurre egin zuten Euskal Herriko kaleetan, manifestazio eta kontra-manifestazio itxuran.



ETAk 1993an bahitu zuen Julio Iglesias Zamora eta BAKek lazo urdina atera zuen kalera

Enfrentamendu testuinguru horretan egin zituen lehen urratsak Elkarrri: abertzaletasunaren mundutik sortua, ezker abertzaleko jende asko bildu zuen, baina ezker abertzaleko egiturekin gero eta harreman tirabiratsuagoa izango zuen. Ajuria Eneko Itunaren erabateko mesfidantza ere bazuen: ezker abertzalearen aurpegi atsegina zen haren begietara. Bake konferentzia han, akordioa hemen eta zubigintzaren ingeniartzan ondo koipeztua, elkarrizketa eta bake prozesuaren ideiak gaur eguneraino ekartzeko garrantzitsua izan zen Elkarrri. 2006an desagertu zen, bere helburu gorena bete barik, etsipen

usainean, baina azken kartutxoak erre gabe oraindik.

LOKARRI zen azken kartutxo hori eta Jonan Fernandez eta Victor Aierdiren itzalean hezitako Paul Rios ezezagun bat barku berriaren gidaria. Lau txakur handi ere ez ziren ordaintzen haren etorkizunagatik. Bitartekoetan txikira besterik jokatu ezin zuenak, handira jardun gura zuen helburutan, Elkarrik han-hemenka utzitako herritar multzo txikiekin. Gehiegi.

Zerbait alde bazuen, ordea, mugimendu berriak: Loiolako porrotaren errautsetan piztu izana eta Elkarriren bitartekaritza sare osoa eskueran izatea. Zorte pixka bat ere izan zuen, tematzeak une klabeetan behar zen lekuan egotea ekarri ziolako geroxeago.

Akordioaren, kontsultaren eta berradiskidetzaren aldeko herritarren sare gisa definitu zuen Lokarririk bere burua. Pozik utziko du bere jarduna orain, helburua lortu delakoan. Eta asko lortu da, ETAk amore ematean, gatazka armatuaren fasea amaitu delako euskal gizartean. Hori bai, aldebakartasunez. Estatuak ilegalizazioen amaiera besterik ez du onartu, 1988an Ajuria Eneko Ituna egin zenean ezker abertzaleak zuen jardun politikorako estatus bera. Ituna bultzatu zutenen asmoen kontrara, aldiz, gatazka armatuaren logikan garaitua izan den mugimendu politiko zabala indartua atera da bere zokoratzetik.

Akordioa, kontsulta eta berradiskidetzaren urrats handiak behar dira oraindik. Gizarte mailan, nor borrokatuko da horien alde orain? ■

ASTE HONETAKO zozketa



Argiako harpidedunentzat



Eureka! Zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA
www.euskalmuseoa.es

1



Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA
www.aquariumss.com

2



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA
www.museosantelmo.com

3



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA
www.ekainberri.com

4



Okatxu

komikia opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2450. Argia)

NAFARROAKO FINALURREKOA MARTXOAK,7

Lalo Etxeberria Aranburu (Hernani)
Antton Idiakez Korta (Ezkio-Itsaso)

NAFARROAKO FINALURREKOA MARTXOAK,8

Roberto Kerexeta Zulaika (Elgoibar)
Arturo Kanpion Kultur Elkartea (Iruñea)

EUREKA

Aitzol Goikoetxea Goldarazena (Hondarribia)
Itziar Garcia Blazquez (Oñati)

LOS GALERNA

Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)
Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)
Malentxo Arrospide Arrate (Lizartza)
Imanol Arluziaga Esnal (Donostia)
Aed Elkartea (Arrasate)

ERLEA GURE SENDAGILE

Eudene Arrizabalaga Basterretxea (Ondarroa)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

gunea

argia






Gizartea aurrera doa berdintasunerantz,
ez dezagun atzera egin.

20º Bejingo
Adierazpenaren
Urteurrena.

10º Berdintasunerako
Euskal Legearen
Urteurrena.

**Berdintasunerako eskubidea
egia bihurtu dezagun.**

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna



PERTSONA HELBURU

Eraikunde Autonomiakuna

EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO